



# ARGIA



## ***Hidrogenoa: mirari ala iruzur?***

10-13.orriak

#2.724 | 2021 / 03 / 14 | 3,90 €



***"Fikzioa?  
Nahiago dut  
jendea entzun"***

14 | MARINA LAMEIRO



***Osasuna zainduz,  
komunitatearen  
bizitza elikatu***

24 | GIZARTEA



***Mugak  
apurtzeko deia  
Hendaia-Irundik***

34 | FEMINISMOA



Artikulu hauek erositako  
ekarpen ekonomikoa  
egingo diozu

**Bilboko Mbolo Moye  
Doole** elkarteari.

Atera aldarria kalera  
euskaraz eta wolofez!

24€



8€

15€

Eskaerak egiteko:

**943 37 15 45**  
**[argia.eus/azoka](http://argia.eus/azoka)**

## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN  
UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:  
CLIPART COURTESY FCIT

## Iritziak

- 19 | ANA MENDIA
- 20 | ANE ABLANEDO
- 21 | AMANCAY GAZTAÑAGA
- 21 | ITZIAR BARDAJI
- 22 | MAITE FERNÁNDEZ
- 23 | NEREA IBARZABAL

## Finkoak

- 38 | KOMUNITATEA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 47 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGİ-KONTRA:  
IÑAKI LIBANO
- 54 | BERANDUEGI



ALTZOKO UDALA

### 24 | KOMUNITATE BIZITZA PANDEMIAN

Harreman sozialek, erritoei eta herri bizitzak badituzte bere onurak pertsonen osasunean, osasuna modu integrean ulertzen bada, heriotzari iskin egitetik harago.

Egoerak eskatzen dituen babes neurriak zainduz, hasieratik ekimenei eutsi dieten hiru esperientzia ezagutu ditugu: Altzon, Donostiako Egia auzoan eta Bilboko Alde Zaharrean.

## Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

**Hidrogenoa: mirarizko energia garbia ala energiaren multinazionalen iruzurra?**

Pello Zubiria

14 | PERTSONAIA | MARINA LAMEIRO

**“Musika dardara da eta bibrazio horrek beste dardara bat eragiten du jendearengan”**

Reyes Ilintxeta

30 | POLITIKA | MUNDUA ERALDATUZ GOZATZEKO

**“Liburua ekintzarako tresna da, beraz, animatu erabiltzera”**

Zigor Olabarria

34 | IFEMINISMOA | MUNDU MARTXA

**Mugak apurtzeko deia luzatu dute Hendaia eta Irun artekoa zeharkatuz**

Jenofa Berhokoirigoin

36 | EUSKARA | DISNEY PLUS EUSKARAZ

**Haurren paradisu txikiak erdaraz egiten du**

Onintza Irureta

42 | KULTURA

**Bidasoaren azpitan alderrai**

Kepa Matxain

### Jabetza

Komunikazio Biziagoa  
S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea

### Lehendakaria

Onintza Irureta

### Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Elizagirre, Gorka Bereziartua, Ixone Arana, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Garcia, Oihane Arretxea, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

### Diseinua

Maitane Gartzandia

### Argazkilaria

Dani Blanco

### Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

### Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

### Salmenta

Karlos Olosolo, Olatz Korta, Pello Basurto

### Azoka

Mikel Olabide

### Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

### Web garapena

Asier Iturralde

### Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

### Lege gordailua

SS 837-2012

### ISSN

0213-909X

### Batzorde parekidea

72562 E

### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus  
harpide@argia.eus

#### Telefonia

943371545

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

#### Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,  
31001 Iruñea

Ametzagaila taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

**aniza**  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

**iametzta**  
interaktiboa

**ADUR** software  
productions

## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egileta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

**OLATUKOOP**

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA



# Arrazakeriaren iluna

Bost hilabete daramatzate Madrilgo Cañada Real auzoko milaka bizilagunek argindarrrik gabe. 150 egun baino gehiago instituzioen erantzunik gabe, "ezkerreko" gobernu baten agindupean. Etxebizitza eskuratzeko aukerarik ez duten edo etxebizitzaren merkatutik kanporatutako familia langile migratzaileek osatzen dute Europan den bizileku irregularrik handiena. Tartean, 1.812 adingabe. Urtetik urtera biztanleria handitu arren, bizi-baldintzek eta azpiegiturek 1960ko hamarkadan bezala jarraitzen dute. Baina nola justifikatu horrelako oinarrizko eskubide bortxaketa masiborik? Ezinezkoa litzateke errealitatea sinpletzeko kanpaina mediatikorik gabe. Euskal Herrian ere zenbait etxebizitza okupazioen harira, erabilitako ohiko estigma sorta haizatzen ari dira hedabide dependenteak: droga, ijitoak, musulmanak eta "elkarbizitza arazoak". Arrazakeriak sortzen dituen diskriminazioaren alde guztiak (lana, osasuna, hezkuntza, etxebizitza...) biltzen dira ongi antolatutako astakeria honen itzalean.

 OLMO CALVO  AXIER LOPEZ









## #MARTXOAK8



GAUR RADIO EUSKADIKO SAIOKO ORDEZKARI POLITIKO GUZTIAK, EMAKUMEAK. MARTXOAK 8 HURBILTZEN DENEAN KEINU HIPOKRITA HAU ERREPIKATZEN DA ETA, MAGIA, INOIZ TOPATZEN EZ DITUZTEN EMAKUMEAK (EZ DAUDE, EZ DUTE NAHI...) AGERTZEN DIRA HEDABIDEETAN

@lkusgaitasuna



URTEA HASIZ GEROZTIK 500 MOBILIZAZIO BAINO GEHIAGO EGIN DIRA ARABA, GIPUZKOA ETA BIZKAIA, BAINA JAURLARITZA M8KO MANIFESTAZIOEKIN ASALDATZEN DA. URKULLU JAUNA, MATXIRULOEI BIDEA ZABALDU DIEZUE MUGIMENDU FEMINISTA KRITIKATZEKO

@ehbildu\_legebil



PANDEMIAN MOTA GUZTITAKO MANIFESTAZIOAK IKUSI DITUGU. AGIAN ARAZOA EZ DA OSASUN PUBLIKOA, SISTEMA PATRIARKAL ETA KAPITALISTAK FEMINISMOARI ETA HONEN BOTERE SOZIALARI DIEN BELDURRA BAIZIK

@Bedarlari



SOLDATAPEKO EMAKUMEEK GIZONEK BAINO %11,7 GUTXIAGO JASOTZEN DUTE LANORDUKO EUSKAL HERRIAN

@gaindegia



# Gas zundaketa egiteko, Jaurlaritzak auzitara joko du

**ZIGOR OLABARRIA OLEAGA**

**G**asteizko Udalak abenduan ukatu zion Subillako Armentia-2 putzuan zundaketa egiteko baimena SHESA hidrokarburoen sozietateari. Putzuan gasik ba ote dagoen ikertu nahi du Eusko Jaurlaritzaren sozietateak. Gorka Urtaran alkateak adierazi du udalaren erabakia defendatuko duela.

SHESAk 2020ko azaroan aurkeztu zuen Armentia-2 putzuan gasa dagoen ikeretzeko eskaera. Abenduan Gasteizko Udaleko alorreko teknikariek ebatzi zuten Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak (HAPO) ez duela baimentzen gasa dagoen ikeretzeko zundaketarik egitea, eta eskaerari ezezkoa eman zion udalak. Garapeneko, Jasangarritasuneko eta Ingurumeneko sailburu Arantxa Tapiak egun berean adierazi zuen ez zuela baztertzen epaitegietara joatea udalaren erabakiaren aurka. Joan den astean jakin da egin egingo duela. SHESAk helegitea "berehala" aurkeztu duela iragarri du. "Ez da hitz egiten ari gas putzuak ustiatzeaz, baizik eta esploratzeaz, baliabide hori badagoen, zer kopurutan dagoen eta etorkizunean bertara jotzea posible izango litzatekeen jakiteko. Ezinbestekoa da lurpean zer dagoen jakitea, erauziko den ala ez alde batera utzita", adierazi du Tapiak.

Gasaren erauzketaren defentsan bakarrik geratu zen abenduan EAJ. Erabaki historiko batean, Arabako Batzar Nagusiek gas putzua ustiatzearen aurka azaldu ziren. EAJk mozioaren aurka bozkatu zuen, beste talde guztiak, PSE barne, alde. Egun batzuk geroago heldu zen udalaren erabakia. Gasteizko alkate Gorka Urtaranek ados ez zegoela adierazi zuen, herritarrek gasa dagoen ala ez jakiteko "eskubidea" dutela argudiatuta, baina erabakia errespetatuko zuela esan zuen.

Orain, Jaurlaritzak auzitara joko duela-eta, udalaren erabakia defendatzen jarraituko duela ziurtatu du Urtaranek: "Udalak ez du jarrera aldatuko, eta Gasteizko on gorenari defendatzen jarraituko du, hau da hiri-antolamenduko plan orokorra, eta horrek gasaren ustiapena debekatzen du".



## HUMANITATEAREN UNE GORENAK

# Oraina besterik



ARITZ GALARRAGA

Zutabe honek ez dauka hilberrien tarte izateko batere bo-kaziorik, baina Jean Claude Carriere ere zendu dela aipatu beharra dut –eta irudipena daukat jende ugari hiltzen ari dela azkenaldian, ez bakarrik birusagatik–. Tira, Carriere, gidoigile aski ezaguna, Luis Buñuelen film ezagun ugari idatzi zituen. Bere heriotzak, hain zuzen, Buñuelen memoria liburua ekarri dit gogora, *Mon dernier soupir*, gazte nintzela irakurri eta oroitzapen ezin hobea utzi zidana. Esan daiteke gidoigileak berak idatzi ziola: “Ez naiz lumagizona. Hizketaldi luzeen ondoren, eta kontatu nion guztiari fidel, liburu hau idazten lagundu zidan Jean Claude Carriere”.

Kontakizun bikaina, anekdota bilduma paregabea, XX. mendeko zinegilerik garrantzitsuenetako –eta, pertsonalki, maitatuenetako– baten barrenek erakusten dizkizu, ezer ezkutatze esfortzurik egin gabe –liburu osoa zeharkatzen duen urrin matxtoa, esaterako–. Azaltzen diren ia kontu guztiak dira benetan jakingarriak, are batzuk praktikoak; adibidez, dry-martini bat ganoraz nola egin: izotz gogorraren gainera “Noilly-Prat” tanta batzuk bota, eta kafe koilarakadatxo erdi bat; ondo irabiatu ondoren, likidoa bazter utzi, eta izotza soilik gorde; izotz horren gainean gin hutsa bota, astindu eta listo. Hori da dena, gaindiezina –ea nor ausartzen den orain esatera zutabe hauek ez dutela ezertarako balio–.

Hori bai, ez nuen hain nostalgiko gogoratzen: “Haurtzaroa Erdi Aroan pasatzeko zortea izan nuen. Garai mingarria nahi bada, materialki; baina espiritualki bikaina. Gaur egungoaz erabat bestelakoa”. Bat baino gehiago dira halakoak. Eta niri nostalgia ez zait batiere interesatzen, nahiz eta inoiz sentitzera iritsi naizen –are bizi izan ez ditudan gauzekiko–. Eta interesatuko balitzait ere, Axular irakurri dut: “Ioana ioan, etorkizuna etorkizun, presentekoa da gure, eta ez bertzerik”. Eta Agota Kristof: “Atzo dena zen ederrago”, dio; baina jarraian esateko: “Oraina besterik ez dago”. ●

## EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



ADUR

## “NOLA DA POSIBLE MASKARA GABE ERDITZEKO AUKERA EZ EMATEA?”

### HAURRAK ERE BAI PLATAFORMAKO EMAKUME HAURDUNA

“Nola da posible fisikoki, emozionalki zein mentalki horren garrantzitsua den bizitzako momentu horretan maskara gabe erditzeko aukera ez ematea? Nola da posible arnasketak izugarritzko garrantzia duen prozesu natural batean? Ez litzateke nahikoa laguntzen duten profesionalek FPP2 edo FPP3 maskara eramatea?”. Kontsulta eta ekografietan lagunduta ezin joatea eta erditze aurreko laguntza taldeak eta erditze osteko edoskitze taldeak bertan behera gelditzea ere kritikatu du. **ARGIA.EUS (2021/03/02)**





## EKONOMIAREN TALAIAN

# Errege “negozioen” estaltzaileak



JUAN MARI ARREGI

**I**raingarria da lehen Juan Carlos I.a Espainiako erregearen “negozioak” eta barrabaskeriak estaltzea ahalbidetu zutenek, orain hipokresiaz erreakzio-natzea. Borboiak hainbeste milioi pilatu bazituen, ez zen bere lanagatik izan, baizik eta Espainiako errege izateagatik eta enpresari handien interesen alde egiteagatik. Beti kapitalaren zerbitzura.

Urteak igaro behar izan dira deskurbitzeko ez zituela bere betebeharrak fiskalak betetzen, iruzurgile handi bat zela. Orain jakin denez, Espainiako erregeak ez zituen 8 milioi euro baino gehiago deklaratu espezietan egindako ordainketetan, 2018ra arte hegazkin pribatuaren konpainia baten hegaldiei zegozkienak. Dirua erregularizatzeko ahaleginean, 5 milioi euro itzuli dizkio altxor publikoari –678.893 euro abenduan abonatu zituen eta orain 4 milioi euro baino gehiago–. Espainiako Ogasunari egindako ordainketa horiek hainbat enpresabururen diruarekin egin dira. Seguruenik, negozioa egiteko bere “gestioez” baliatu ziren berak dira orain mesedea itzuli diotenak.

Borboiaren bizitzaren alderdi hau, ziur bere estaltzaileek jakin eta dakiten guztiaren zati txiki bat besterik ez dela. Gobernuak, Ogasuna, Zerga Agentzia, epaileak, politikariak, komunikabideak eta tertuliakideak... Espainiako monarkiari men egiteko eta lausengatzeko kate baten parte dira. Haien konplizitate gabe, Juan Carlos I.ak ezin izango zukeen egoera honetara iritsi.

“Guztioi egin digu huts, beldurtiegiak eta toleranteegiak izan gara, inork ez zuen liburu hori ireki nahi”, adierazi du Ramon Jauregi espainiar ministro ohiak. Ez, Jauregi: zu estaltzaile hutsa izan zinen, fronte politiko, judizial, enpresarial eta mediatikoa izan zen bezala. Zuentzat erregea ukiezina zen. Orain, iruzurra agerian, “desengainatuta” sentitzen zarete? Ene, zenbat estaltzaile eta konplize! Zenbat hipokrita! ●

## ANALISIA



## Porn Riot-az eta kazetaritzaz

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

**P**ablo Hasélen atxiloketaren harira deitutako mobilizazioen eskutik mahai-gaineratu da, ebatzi gabea izateagatik, tarteka eztanda egin ohi duen auzia: gatazka sozialaren ondorioz istiluak sortzen direnean, zer duen zilegi argitaratzea lekuko izan den (foto)kazetariak. Orain hiru aste Bartzelonan jasotako protesten harira, gori-gori egon da eztabaida, publiko egindako hainbat irudiren aitzakian: manifestari asko eta asko ageri ziren, identifikatzeko erraz, eta legearen aurrean delitu kontsideratzen diren ekintzak gauzatzen.

Kexu agertu dira herritar eta kolektibo ugari, protestetan parte hartu eta ekin-tza zuzena gauzatu nahi izatera, (foto)kazetaritza eredu horrek beren segurtasuna urratzen duela eta maiz beren ekintzei ere trabak jartzen dizkiela seinalatuz. Interpelazioen aurrean, pilota bere teilatutik kanpora jaurti duenik ez da falta izan, adierazpen askatasunaren izenean autokritikari ateak itxi eta jaten ematen dion kazetaritza eredu sarraskijalearen defentsa eginez. Isilik mantendu den kazetaririk ere egon da. Eta beste zenbaitek, eztabaida aurrerapausoak emateko aukera gisa baliatuz, beren jardunaren berrikusketari eta eztabaidari bide eman die. Alabaina, iru-ditu zait badela argudio bat postura ezberdinek baliatu dutena, zeinaren erabilerak artegatzan nauen, iruditzen zaidalako bi ahoko sorbatza izan dezakeela eta norbere jarduna zuzartzeko baliatu daitekeela: kazetarion presentziak bermatzen duela protesta egiten dutenen segurtasuna, gertakizunen testigu garen heinean.

Bada, bai eta ez. Kazetarion jarduna giltzarri da edozein gertakariaren aurrean –poliziaren gehiegikeria, kasu– testigantza zuzena eta frogak aurkezteko. Baina kal-tetuari nola, beste aldeari ere balio diezaioke froga bezala dokumentatu dugunak, informazio konprometitua eskuragarri jartzen badiogu. Adibide bat jartzearen: Bartzelonako protestetan emakume bati begia leherrarazi zion mossoa ustez iden-tifikatzea ahalbidetzen duten irudiak justiziari luzatu dizkion fotokazetari berberak hamaika argazki ditu sarean publikatuak, protesta horietan parte hartu zuen hain-baten identifikaziorako baliatu daitezkeenak. Kazetariak begia txikitu dioten emaku-mearen kasuan egindako ekarpenari baliorik kentzeko inolako asmorik barik, jar-duteko modu horrekin, nago, kaltetu ditzakegun pertsonak gehiago direla mesedetu ditzakegunak baino.

*Porn Riot*-ak (istiluen pornoa) pisua duen garaiotan, zerbait argitaratzerakoan, iruditzen zait erraz antzean gailentzen zaiola irudiaren inpaktatzeko gaitasuna eta estetika berorrek ematen dugun informazioaren egokitasunari. Eta horrek, bote-rea jagon eta kuestionatu xedez kazetari sartu denari bederen, alarmak jo beharko lioke; eskutan darabilgun informazioarekin, lana erraztu baitiezaiokegu hormaren kontra jarri gura dugun horri. Ez al litzateke kazetarion eginbeharra gure jarduna-rekin defendatzen dugun horren alde protesta egiten duten herritarren segurtasuna bermatzea, nahiz eta horrek eskatu daukagun irudi potentea sakrifikatu eta argi-tara ez ematea? ●



## NEANDERTALAK GAI ZIREN HITZ EGITEKO


**NAZIOARTEA.** Neandertala humanoago bihurtzen duten gero eta froga gehiago ari dira aurkitzen arkeologo eta paleontologoak azken urteetan, baina *Nature Ecology and Evolution* aldizkari zientifikoan argitaraturiko ikerketak urrats nabarmena eman du norabide horretan: Neandertalek egungo gizakiaren entzumen gaitasun bera zutela erakutsi du Atapuercako aztarnategiari loturiko nazioarteko ikerketa talde batek, eta horrek hitz egiteko gaitasuna emango lieke. Irudian: neandertal baten (eskuinean) eta gizaki “moderno” baten belarrien errekonstrukzioa 3D modelo batean.

## LGBTI

# %6

baino ez dira LGBTI pertsonaiak, Espainiako Estatuko film eta telesailetan. 2019 urteko

56 pelikulan eta 43 telesailetan ageri diren 1.300 pertsonaia aztertu dituzte, eta ondorioa garbia da: pertsonaia ez-heterossexualak gutxi dira, eta agertzen direnean rol anekdotikoa dute edo sexu-joerari lotuta bizi duten dramen zentratzen da euren papera.



## Milaka indigena antzutzegatik epaitzen ari dira Fujimori

**OIHANE ARRETXEKA BEREZIARTUA**

Alberto Fujimori Peruko presidente ohiaren aurkako epaiketa hasi da, bere gobernupean egin ziren milaka esterilizazio behartuengatik. Biktima gehienak emakumeak, nekazariak, pobreak eta kitxuak izan ziren.

### GERTATURIKOA

Giza eskubideen aldeko ekintzaileek hamazazpi urtez egindako eskakizunen ostean hasi da prozesu judiziala. 1996 eta 2000 urteen artean, “Borondatezko Kontrazepzio Kirurgikoak” deituriko kanpaina jarri zen martxan. Fiskaltzaren arabera, urte horietan kitxua komunitate indigenako eta baliabide ekonomiko urriko 350.000 emakume eta 25.000 gizon antzutu zituzten, haien borondatearen aurka.

### ARGUDIOA

Gobernuaren arabera, pobreziari aurre egiteko neurria izan zen, baliabide gutxikoen artean jaiotza-tasak murrizteko. Arduradunek prozedura kirurgikoak pazienteen baimenarekin egin zirela adierazi zuten hasieran. 2002an, ordea, Errepublikako Kongresuaren ikerketa batek frogatu zuen osasun langileak presionatu zituztela emakumeen onespenez gabeko esterilizazioak burutu zituztela. Fujimori 25 urteko kartzela zigorra betetzen ari da gaur egun, Barrios Altoseko eta La Cantuntako sarraskiengatik.



**EHZ.** laz bertan behera utzi behar izan zuten, baina aurtien osasun neurrietara ego-kitutako jaialdia prestatzen ari da EHZ festibala. Uztailaren 2, 3, eta 4an izango da eta lekurik ez dute zehaztu oraindik. 5.000 lagunek parte hartu ahal izango dute gehienez.



**KUTSADURA.** Bilbon dagoen errausketa-labe bakarra da Funeraria Bilbaina enpresa-rena, Zumalakarregi kalean, eta zabaldtu zutenetik hainbat tira-bira izan dituzte aulakarekin eta auzokideekin. Labeak azken urtean sei isuri kutsakor baino gehiago izan dituela salatu dute.



**EUSKALTZAINDIA.** Sagrario Aleman izango da Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkari berria. Andres Iñigo ordezkaturko du, 1997az geroztik Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkaria zena. Ipar Euskal Herrian, Jean-Baptiste Coyosek Xarles Videgain ordezkaturko du.



# HIDROGENOA

## MIRARIZKO ENERGIA GARBIA ALA ENERGIAREN MULTINAZIONALEN IRUZURRA?

Hidrogenoaren Euskal Korridorea sortu dute Bilbon otsailaren 22an, EAEko 78 erakunde publiko eta pribaturen artean. Eusko Jaurlaritzako sailburu Arantxa Tapiak solemnitateraz adierazi du, trantsizio energetikorako eta klima aldaketaren aurkako borrokarako hidrogenoa ezinbesteko elementua denez, EAeri beharrezkoa zaiola esparru horretan posizionamendu estrategikoa hartzea, ahal den neurrian Europatik iritsi behar duten funts berriekin –400 milioi euro daude eskatuta– baina baita horiek gabe ere. Hidrogenoak salbatuko ote gaitu energia krisitik eta klimaren zoratzetik?

### PELLO ZUBIRIA KAMINO

**P**etronor-Repsol energia multinazionalak bultzatutako *Basque Hydrogen Corridor (BH2C)* proiektuaren helburua da –Emiliano Lopez Atxurra lehendakariak, Josu Jon Imazen ordezkaria denak adierazi duenez– EAEn “hidrogenoaren ekosistema” sortzea, energia, industria, zerbitzu eta mugikortasun sektoreen deskarbonizazioan aurrera egin ahal izateko. Proiektu handia ez, hurrengoa: 1.300 milioi euroko inbertsioa 2026ra arte, zuzenean 1.340 eta zeharkako 6.700 enplegu berri, urtean 20.000 tona hidrogeno ekoiztea, atmosferara urtean 1,5 milioi tona CO<sub>2</sub> gutxiago isurtzea...

Hain da begien bistakoa, antza, hidrogenoak munduari ekarri behar dion onura, ezen eta kultur-etxe bateko hormen koloreak erabakitzeke ere parte-hartze prozesuak antolatzen dituen Euskal Herri honetan eztabaida zabalen beharrik gabe sartu baigaituzte herritarrok hidrogeno liluragarriaren trenean. Ez da EAEko kontua bakarrik, egia, Europar Batasunak COVID-19ak eragindako hondamendi ekonomikoa

gainditzeko antolatu dituen Next Generation EU funtsen zati handi bat dago hidrogenoari lotua.

### MULTINAZIONAL GRISAK BERDETZEKO

Berria egunkarian otsailaren 21ean plazaraturiko artikulua sailean Irune Lasak ederki azaldu ditu zientzialari askok, energiaren konpainiek eta Euskal Autonomia Erkidegoan estrategia publikoak erabakitzen dituzten agintariek hidrogenoan jarritako itxaropenak. Europar Batasunak bere buruari 2050 urtea jarri dionez “zero karbono emisio” helburua erdiesteko epetzat –klimaren beroketa 1,5 °C-tan gera dadin, Parisko Itunak jasotzen duen moduan– erregai fosiletatik berriztagarrietarako trantsizioari abiadura arindu beharra dago, 30 urte airean pasako direlako. Gaur petrolioak mugiarazten dituen jardueretan, ekonomia “deskarbonizatzeko” elektrizitatea erabiltzea da hautu nagusia baina, elektrikaz ezingo direnez burutu jarduera ekonomiko guztiak, hauek hidrogenoak mugiaraz ditzakeela erabaki da.

Baina zein hidrogeno? Bada hidrogeno ‘grisa’ jada industria kutsatzaileek beren prozesuetan lortzen dutena gas naturaletik edo amoniakotik –hala egiten dute Muskizen Petronorrek eta Hernanin Electroquímicas–, baina karbono dioxidoa isuriz atmosferara. Bada ere hidrogeno ‘arrosa’, energia nuklearra erabiliz ekoiz daitekeena; antza denez, nuklearrez jositako dagoen Frantziak hori indartu nahi du trantsiziozko hamarkada hauetarako.

Eta, azkenik, bada hidrogeno ‘berdea’, beste iturri berriztagarriak erabiliz urari (H<sub>2</sub>O) oxigenoa kenduta ateratako hidrogenoa (H<sub>2</sub>), karbono isuririk gabea... teoriarik bederen. Hidrogeno berdearekin edukiko genuke erregai bat agortezina, oso urruti egon daitezkeen energia berriztagarriekin –haize-errotak, eguzki plakak, zentral hidroelektrikoak...– sortu arren erraz eskuratuko genukeena, sare eta bateria elektrikoek muga asko gaindituko lituzkeena.

Gaur erregai fosilez mugitzen den ekonomia osoaren zenbaterainoko zatia mugiaraz lezake hidrogeno berdeak 2050erako? Baikorrenen iritzian, ener-



#### AURKEZPEN EKITALDIA.

Basque Hydrogen Corridor proiektua aurkezteko ekitaldia; tartean, Emiliano López Atxurra, Petronor-eko presidentea, Arantxa Tapia, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua; eta José Ignacio Zudaire, proiektuaren koordinatzailea.

gia-eskari osoaren %24 ase lezake. Hydrogen Council osatzen duten mundu mailako konpainia handien kalkuluetan, %18. IRENA Energia Berriztagarrien Nazioarteko Agentziaren ustez eskariaren %6 edo %7 bete dezake hidrogeno berdeak 2050ean.

Hala ere, Europar Batasunak erronka estrategikotzat hartu du hidrogeno berdearen aurreratzea. 2024 urterako sei Gigawatteko ahalmena lortu nahi du elektrolizagailuetan –urari kenduz hidrogenoa sortzeko lehen urratsa diren azpiegituretan– urtean milioi bat tona hidrogeno sortzeko. 2030erako elektrolizagailutan 40 GW-eko potentzia lortu nahi da, urtean 10 milioi tona hidrogeno ekoiztuz. Horretarako Europar Batasunak aurreikusi du 2050era bitartean 180.000 eta 470.000 milioi euro bitarteko inbertsioak egitea.

Euskal Herrira etorruta, hidrogenoaren inguruan antolatutako proiektuetako asko Eusko Jaurlaritzaren *Euskadi Next* barruan daude eta Europar Batasunak 2021eko udaberrian hautatuko dituen artean egoteko lehian ari dira. Inbertsio

gehienak ikerketa eta prototipoak sortzeko dira, teknologia eta prozedura berriak ikertu eta frogatzeko antolatuak. Horiek gero produktu eta negozio-lerro bilakatu diren, beranduago ikusiko da. Abiatzeko inbertsio handiak behar dituzte, alabaina, eta horretarako aldarrikatzen dute inbertsio publikoa.

EAEn Hidrogenoaren Euskal Korridorearen liderra den Petronor –Repsol multinazional espainiarraren adarra– jada ari da hidrogeno grisa ekoizten, gas naturala erabiltuta eta Europako funtsak erabiliz hidrogeno berdeari ekin nahi dio, Muskizko birfindegitik bertatik abiatuta, 100 Megawatteko elektrolizagailuak erakiz eta Muskizen berreskuratutako CO<sub>2</sub>a-rekin teoriarik "karbono-neutroak" diren erregai sintetikoak ekoiztuz.

Iberdrola multinazionala eta Zamudioko ingeniariak jabe dituen Iberlyzer konpainia da hidrogenoarentzako diru publikoak eskuratu nahi dituen beste bat, elektrolizagailuak ekoizteko. Elektrolizagailuak dira hidrogeno berdea prezioz lehiakorra izatearen gakoa eta Europar Batasunak interes berezia dauka horien

garapenean. EAEko ikerketa zentro pribatu nagusia den Tecnalia ere alor berean ari da lehian.

Naturgas multinazional espainiarraren adarra den Nortegasek Boroan (Zornotza, Bizkaia) gaur gas naturala errez energia elektrikoa ekoizten du eta dirulaguntzak eskuratu nahi ditu urtean 1.500 tona hidrogeno berde ekoizteko. Berekin daude, nazioarteko zenbat inbertsiogilez gain, Bizkaia Energia eta Sener ingeniariak, Lemoizko zentral nuklearra eta Zabalgari erraustegia diseinatu zituenak. Irakurle gazteak jakin dezatan, 2022an beteko dira 20 urte Zornotzako herritarrek erreferendumean Boroan zentral hori ez eraikitzearen alde bozkatu zutenetik... alfer-alferrik, gero ikusi denez.

Energia fosilen ekoizpenean bereziki hiru erraldoi horien ondoan, bi energia-kontsumitzaile handik ere izan nahi dute hidrogenoan aitzindari. CAF, Gipuzkoako Goierri sortuta jada multinazionala den tren konpainia interesatuta dago, hidrogenoak batetik trenetan izan dezakeen erabilpenean –nagusiki



elektifikazioa garestiegia zaien tren-bideetan– eta bestetik, autobusen alorrean, zeinetan lehiatzen baita horretarako erosi zuen Solaris filialaren bidez.

Gipuzkoa eta Bizkaiko itsas industria biltzen duen Adimde patronalak ere jokatu nahi du hidrogenoaren ligana. Are gehiago, bere arduradunek diotenez, jada Balenciaga ontziola hasia da hidrogenoak mugiarazitako itsasontziak ekoizten.

## HIDROGENO AFRIKARRA

Enric Julianak –Eusko Alderdi Jeltzalearen iturriei sinesgarritasun berezia ematen dien kazetari katalanak– honek laburbildu du *La Vanguardia* egunkarian hidrogenoarekiko euskal sukar berria: “Hidrogeno berdea ekoiztea da Alemaniako industriak zabaldu duen agindu nagusia, deskarbonizatu ahal izateko energia atomikoaren beharrik gabe, hau baita Frantziaren indar nagusietakoa (...). *Basque Hydrogen Corridor*, horra Petronor-Repsol Eusko Jaurilaritzaren babes aktiboarekin idatzituen siglak EAE jartzeko hidrogeno berdearen Espainiako produkzioaren buru”. Ekonomia deskarbonizatzea erregai berri, eraginkor, merke, garbi eta agortezin batekin. Hidrogeno berdeak lortuko ote du hori guztia?

ARGIAko orrietara behin baino gehiagotan ekarri dugun beste aditubat Antonio Turriel fisikaria da, uniber-

tsitatean eta CSIC Espainiako Ikerketa Zientifikoaren Zentroan ari dena. *The Oil Crash* blogean luze azaldu ditu bai hidrogenoak dauzkan ezintasunak aipatu helburuak lortzeko, eta bai apostu horren atzean dagoen jokaldi bat argitara ekartzeko.

Hasteko, hidrogenoa bera ez da energia iturria, H<sub>2</sub> hori lortzeko, uretik esaterako, benetako energia gastatu beharra dago, eta beraz ez dauka zentzurik jadanik urritzen ari diren beste energiak hidrogeno ekoizpenean xahutzeak, ez behintzat era masiboan. Bestalde, hidrogenoaren beste “arazotoxoak” daude: presio handian eduki ahal izateko ontzi lodi eta zamatsuak behar ditu, hodiak gehiegi herdoiltzen ditu gas naturalaren hoditeria erabili ahal izateko, autoetan oso efizientzia apala du, garraio-bideetan erabili ahal izateko piletan platinoa bezalako metal urriak behar ditu, eta abar.

Hori dena horrela bada, zertara dator hidrogenoaren sukar hau? Eta zergatik aipatzen da hainbeste hidrogeno-trena? Gakoa –dio Turielek– dago Kongon Inga ibaian Alemaniaren esku hartzearekin eraikitzen ari diren zentral hidroelektrikoan. Urtegi hori kolosala izanen da: munduko urtegi handiena, 44 Gigawatt ekoiztuko ditu, Txinako Hiru Arroiletakoaren bi halako. Alemaniako industriak eta gobernuak aitortua dute helburua dela bertan hidrolisiz ekoiztutako hidrogeno berdea Europa ekartzeko.

Nola? Trenez askoz azkarrago ekarriko da itsasontziz baino –gaur Kongon sortutako hidrogenoa bizpahiru egunetan iritsi liteke Alemaniara, eta Afrikan tren-sare elektifikaturik ez dagoenez, hidrogenoz mugiarazteak hartzen du zentzua–. “Beraz –dio Turielek– badakizue, hidrogenozko trenaren kontu hain moderno honek oinarrian estaltzen du historia askoz zaharrago eta ilunagoa: kolonialismoa, kasu honetan energiaren mugak. Afrikara joango gara haiei kentzera dauzkaten azken baliabideak, energia berriztagarriak. Baina planak diseinatzeko dituzten hauek ez dira jabetzen Afrika osoak berriztagarrietan eduki lezakeen ahalmena ez dugula aski izango Europaren gaur eguneko energi-xahuketa asetzeko”.

Espainiak, eta tartean EAEk, badaukate paper berezi bat jokatzen eta da Afrikako hidrogenoa iritsi arteko tartean Europa hornitzea. Espainiak jada elektrizitate gehiago sortzen du kontsumitu dezakeena baino eta kontsumoa 2008tik jaisten ari zaio, gainera. Hala ere, gero eta baimen gehiago eskatzen dira Espainian zentral eolikoak eta fotovoltaiakoak ezartzeko. Kontraesan hori esplikatzen dezake Europak daukan energia goseak. Frantziak bere zentral nuklearrekin dauzkan arazoak esplikatzen duten bezala hau ere hidrogeno berdearen aldeko apustuan aritzea.



**BOROAKO ZENTRAL TERMIKOA,**  
Hidrogeno Korridorearen osagai nagusietako bat.



### INGAKO ZENTRAL HIDROELEKTRIKOA, KONGO IBAIAN.

Hau zabalduz, bihurtu nahi dute munduko zentral handiena, bertan hidrogenoa ekoiztu eta Europara eramateko.

Espainiako energia konpainiek, errematatzen du Turielek, etekin handiak aurreikusten dizkiote Europako Itun Berde berriaren planteamenduari, “horregatik babesten dute begi-itsuan hidrogeno berdea bere parafernalia guztiekin. (...) Espainiako gainerako enpresentzat eta herritarrentzat hidrogeno berdearena porrotera daraman apostua da, bai gutxienez eskala horretan eta helburu horrekin antolatuta”.

### BERDIN KONTSUMITZEN JARRAITZEKO

Ugo Bardi kimikari eta energia krisian aditua, ARGIAren *Larrun* baten egilea dena, jada 1980an hidrogenoaren ikerketa lanetan ari zen Kalifornian, Berkeleyko

laborategi batean, teknologia berriaren muina den erregai pila garatzeko lantaldean –Jeremy Rifkinek bere *The Hydrogen Economy* liburua publikatu baino hogeit urte lehenago–. Bardik 1980tik gaurdaino ikusi du hidrogenoa dantzan petrolio krisi ezberdinen musikan –1980an lehen *petrolio shock*-arekin, gero Arabiar Golkoko lehen gerraren ostean, 2001ean New Yorkeko Dorre Bikien eraso gertatu zenean...–, eta aldi bakoitzean hidrogenoaren lilura pizten zen eta –urre beltza berriro Mendebaldera merke iritsi ahala– prentsarik desagertzen. Alabaina, urte luzez hidrogenoaren teknologian lan egin ostean etsi egin du Bardik ere, eta azaltzen du duela 40 urte konpondu gabe zeuden arazo tekniko nagusiek zintzilik

jarraitzen dutela hidrogenoarentzako. Berrikitan “Hidrogenoaren iruzurra: hidrogenozale-ohi baten aitortza” idatzi du bere blogean.

Ondokoa dio: “Zonbi baten tankerakoa da ‘hidrogenoaren ekonomia’, behin eta berriro akabatzen duten aurren, berriro itzultzen zaigu. Hidrogenoak sekulako lilura sortzen dio jendeari, saltzen diotelako horrek emango digula modua orain arte egin dugun guztia egiten jarraitzeko ezer sakrifikatu eta ezer aldatzeko beharrik gabe. Zoritxarrez, errealitatea ez da Hollywoodeko film bat eta txanponak badu bere ifrentzua. Hidrogenoa fantasia bat da eta eragozten digu energien multzotik erregai fosilak ezabatzeko benetako berrikuntzak martxan jartzea”. ●



## ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com








**Marina Lameiro**

**DARDARA IRUDIETAN HARRAPATZEN DU**



# MUSIKA DARDARA DA ETA BIBRAZIO HORREK BESTE DARDARA BAT ERAGITEN DU JENDEARENGAN



Film dokumentalak maite ditu egile iruindarrak. Bere lehen filmetan gazte askok bizi duten prekarietate amaigabeaz eta gentrifikazioaz mintzatu ondoren, orain musikak sorrarazten digun dardarizoaz ari zaigu Berri Txarrak eta bere zaleen inguruko *Dardara* dokumentalean.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

**Kasik bizitza erdia eman duzu etxera itzuli aurretik. Nolakoa izan da zure ibilera nomada hori?**

Ikasketen eta lan egiteko aukeren arabera mugitu naiz. Madrilen, unibertsitatean nengoela, laugarren maila Mexikon egiteko aukera sortu zitzaidan. Gero, karrera bukatu ondoren, Mexikora joan nintzen bizitzera, nire hango bikotekidearekin. Ondoren Bartzelonan eta New Yorken ere bizi izan naiz. Ikasketak amaituta, aurrean amildegi moduko bat neukala sentitu nuen. 2016an Iruñera itzultzea erabaki nuen. Bi urtetara *Young & Beautiful* estreinatu zen eta 2019an *Dardara* grabatzen eta bestearen promozioa egiten eman nuen urte osoa. Etxean eman nuen denbora tarterik luzeena astebete izan zen.

**Beraz 2020an pandemiarekin seko gelditu zara. Kontraste ikaragarria, ezta?**

Bai, hala da, baina eskertu nuen. Gainera nik COVID-19a hartu nuen konfinamendua hasi baino lehenago. Inguruko asko kutsatu ziren, lagunak, gurasoak, ahizpa... eta horregatik lasai bizi izan dut hau dena, bestela ez dakit nolakoa izango zen gaixotzeko beldurrez egotea denbora guztian. Urtebeteko paranoia izango zen seguruenera.

**Dokumentalak egitea zergatik duzu gustuko?**

Behatzea eta, batez ere, entzutea gustuko duen pertsona naiz. Fikzioarekin asko gozatzen dut, baina ez dut neure

burua ikusten aktore bati gidoi itxi batean jartzen duena esan dezala eskatzen. Nahiago dut jendeak esateko duena entzun. Errealitatearekin lan egitea gustatzen zait. *Dardara*-n denbora gutxi nuenez, jendeari euren burua momentu jakin batean irudikatzeke eskatu diet, egoerak planteatu ditut, baina ez diet esan zer esan behar duten.

Marcel Lozinsky izan nuen irakasle Bartzelonan eta berak kontzeptu interesgarri bati buruz hitz egin zigun: errealitatea dentsifikatzeaz. Egiatan goiz ala berandu gertatuko den zerbait probokatzea da hori, zain egon gabe. Hori ere zilegi da, munduko denbora eta baliabide guztiak ez dituzulako gauzak berez gertatzen direnean grabatu ahal izateko.



# Marina Lameiro Garayoa

IRUÑEA, 1986



Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna da Madrilgo URJC unibertsitatean. 2012an Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitateko Sor-kuntza Dokumentaleko Masterra egin zuen. 2013an muntaketan espezializatu zen, unibertsitate berean gradu-ondoko bat eginez. 2014 eta 2015 bitartean, New Yorken ikasten egon zen eta bertan *300 Nassau* dokumental laburra zuzendu zuen, gentrifikazioa gai hartuta. *Young & Beautiful* (2018) bere lehen film luzea da, bere belaunaldiko hainbat gazteren erretratua. 2019an zehar grabatu du, Berri Txarrak taldearen eta bere jarraitzaileen inguruko dokumentala. Martxoaren 15ean estreinatuko da Ikuspuntu-Punto de Vista Zinema Dokumentalaren Nazioarteko Jaialdian eta 19an zinema-aretoetara iritsiko da.

## Zure lehen filmean, *Young & Beautiful*-en, dentsifikatu zenuen errealitatea?

Ez. Protagonistekin bi urtez egon nintzen, beti kamera eskuan hartuta momentuei itxaroten. *Young & Beautiful*-en logika ezberdina zen, geure intimitatea zen filmaren muina, geure erlazioa, ni beste pertsonaia bat nintzen. Oraingoan produkzioaren aldetik ezin zen eta ez zuen zentzurik Japonian sei hilabetez pertsona bati pegatuta egoteak, adibidez, interesatzen zitzaidan unea harrapatzeko.

## Lehen filmean 20-30 urte arteko jendearen erretratua egin zenuen. Prekarietate egoera amaigabea da batzuentzat?

Bai, nik uste dut askotxo hala bizi garela. Oro har, gurea da lehenbiziko belaunaldia gure gurasoena baino okerrago bizi dena. Aldi berean guk haurtzaro desberdina izan genuen. Gure baitan sortu zen bereziak ginela eta nahi genuena izaten ahal gineneko ideia. *Young & Beautiful*-en agertzen garenak, 2008ko krisia baino lehen gizartetik kanpo ez, baina bai gara espazio alternatiboetan bizitzea erabaki genuen pertsonak. Gehienak asanbladetan, gaztetxetan, gazte mugimendu asanblearriotan, *rave* mugimenduan eta autogestioan mugitzen ginen. Krisiari esker jende gehiagok ulertu du gure bizitzeko modua.

## Eta gaur egun jarraitzen duzue norabide horretan?

Gero eta gehiago hurbiltzen ari gara "sistemara", gure modura. Nik lehen okupatzen nuen eta orain jada ez, baina beste batzuek bai. Denbora pasatzeko moduak ezberdinak dira ere bai. Hazten zaren heinean aldatzen zoaz eta ni ohartu naiz, besteak beste, nire auto-esplotazioaren tranpan erori naizela. Nik lan egiten dut benetan gustatzen zaidan zerbaitetan, baina duela bi urtetik lana besterik ez dut egiten eta oso argi daukat hori ez nuela egingo beste pertsona edo enpresa batentzako. Superargi daukat, baina horretan erori naiz eta aldatu nahi dut.

Hori askotan gertatzen da lanbide sortzaileetan. Lehen filma estreinatu nuenean pentsatu nuen izugarria zela, baina zalantzan nengoen merezi ote duen nire bizitzako sei urte xahutu eta gauza pilo bat alde batera utzi izanak.

## Zeri buruzkoa zen *Nassau 300*, zure lehen laburmetraia?

New Yorken UnionDocs espazioan erresidentzia egin nuen. Erresidentzia horretan toki ezberdinetako artistak elkartzen dira taldeka, bi film labur sortzeko helburuarekin. Urte horretako gaia, UnionDocs kokatua dagoen auzoaren inguruko zerbait egitea zen. Auzo hori, Williamsburg, oso gentrifikatua dago eta ikusi nahi genuen zergatik gertatzen ari zen hori, gentrifikazioaren muinera iritsi. Abokatu talde batekin harremanetan izan ginen urte osoan eta haiek aipatu ziguten kasu hau. Etxea itxita zegoen epaileen aginduz eta egun batean bizilagunei aukera eman zieten haien gauzen bila joateko. 20 bat minutu izan ziren eta ni sartu nintzen haiekin irudiak hartzera.

## Zer da Hiruki Filmak?

Garazi Erburuk, Ione Atenea nire ahizpak eta hirurok sortu genuen ekoiztetxea gure filmak txandaka ekoizteko. Hasieran gureak baizik ez genituen ekoiztu behar, baina Arantza Santes-tebanek gidoi bat aurkeztu zigun eta hain ona zenez, ezin izan genion ezetz esan. Gure filmak egiten ditugu eta beste emakume batzuei laguntzen diegu haienak egiten. Egia esan, eskaera asko jasotzen dugu eta haien artean gizon askorenak ere bai. Nabari da batzuek ez dakitela ezta nora idazten ari diren ere: "*Hola, igual estás interesados en...*" diote eta ni honekin haserretu egiten naiz. Ez dute irakurtzen ezta webgunean jartzen duena ere: hiru emakume gara eta beste emakumeen pelikulak ekoizten ditugu. Nik ez nuke erantzun-go edo superborde esango nieke zerbait, baina ez didate uzten.

## Zergatik dago emakume gutxi zinema munduan?

Ez dut uste horren gutxi dagoenik. Egia da aurrekontua zenbat eta altuagoa izan, orduan eta emakume gutxiago dagoela, baina orain zinemagintza asko demokratizatzen ari da teknologiari esker. Ez du batere zerikusirik duela 30 urteko egoerarekin. Niri interesatzen zaidan zinemaren alorra nahiko parekatua dagoela uste dut nik, baina fikzio komertziala agian ez hainbeste. Hala ere, aurten estatu mailan izan den film garrantzitsuenetako bat, *Las niñas*, emakume batena izan da, adibidez. Baina egia da, bestalde, datuen arabera, emakume asko hasten direla zinema

egiten eta lan bat, bi edo hiru egiten dituztela soilik.

### **Desberdintasunik ba al da emakume eta gizonen arteko lanetan?**

Nik ez dut emakumeen begirada eta hala-ko gauzarik sumatzen. Badira beste faktore batzuk hori baino garrantzitsuagoak izan daitezkeenak zinema egiteko moldea definitzerakoan, maila soziala edo egilearen jatorria, esate baterako.

Batzuek diote emakumeek, emakume izateagatik, egiten dituztela film delikatuagoak, sentikorragoak edo intimoagoak. Nire zinema, preseski, barnekoi eta agian sentikorra da, baina badira halako lanak egiten dituzten gizonezkoak eta halakoak egiten ez dituzten emakumeak. Zinema genero batzuetan agian emakume

gutxiago dago, dena den, ikusi ditudan azken westernak emakumeek eginak dira.

### **Dardara egiteko ideia nola sortu zen?**

Berri Txarrak taldearen ekimena izan da. Azken bira dokumentatu nahi zuten, baina ikuspegi zinematografiko batekin uztartuz. Niregana jo zuten, ideia proposatu zidaten eta asko gustatu zitzaidan. Ekoizpena Arena Comunicación eta Txalap. Art-ena da, Only In Dreams-en laguntzarekin. Taldekideen ideia zen zaleei omenaldi moduko bat egitea eta eskertzea 25 urte hauetan haien ondoan egon izana. Hasierako baldintza bakarra zen zaleak izatea protagonistak, baina laster ohartu ginen bai ni eta bai Itziar Garcia Zubiri, ekoizlea, soilik hori ez zela aski eta beharrezkoa zela Gorka Urbizuren ibilbideaz

eta azken erabakiaz ere hitz egitea.

Nire erronka zen film on bat egitea jende guztiarentzat, Berriren zale izan ala ez. Eta esplorazio puntu bat ere bai. Zinematografikoki ekarpen bat egingo lukeen zerbait egin nahi nuen. Abiapuntua izan zen erabakitzea nolako irudiak nahi nituen. Kontzertu baten grabazioan pentsatzen dugunean ohituta gaude irudi azkar eta laburretara. Irudi leherketa modukoak ditugu buruan eta nik oso garbi neukan hori ez nuela nahi. Nahi nituen oso plano luzeak eta gertukoak, jendearen aurpegiak ikusteko. Kontzertu baten emozioa ezin duzu bideo bitartez transmititu. Argazki batean bai harrapa deza-kezu momentua eta horretan proiektatu zuk sentitu zenuen guztia, baina bideo batean ez, horregatik planteatu nuen kamera pertsona bati begira jartzea eta haien emozioetan zentratzea.

### **Non grabatu duzue?**

Euskal Herrian, Espainian, Alemanian, Mexikon, Estatu Batuetan, Japonian eta Frantzian "Ikusi arte" birako emanaldiak egin diren tokietan. Taldearen kontzertuak jarraitu ditugu, baina ez ginen taldearekin joaten. Guk zaleengana jotzen genuen zuzenean eta gero haiekin joaten ginen kontzertura. Japonian izan genuen aukera parranda txiki bat egiteko Berriko kideekin eta bere *crew*-koekin. Karaoke batean bukatu genuen, oso dibertigarria, baina orokorrean ez gara denbora gehiegi elkarrekin egon atzerriko saioetan.

### **Nola jartzen zineten harremanetan zaleekin?**

Pare baten kontaktuak taldekideek pasa zizkidaten, beste batzuk kontzertuetan lehen ilaran ikusitakoak dira eta gainerakoak sare sozialen bidez aurkitu ditut, bereziki Instagramen bidez. Kontaktuan jartzen nintzen eta elkartzeko ginen haiekin unetxo batzuk partekatzeko. Ez dira elkarriketak. Sartu-atera azkar bat egiten dugu haien bizitzetan. Ez diote kamerari hitz egiten. Bada fikziozko film bat bezalakoa, baina egiazko pertsona eta istorioekin.

### **Denak zaleak dira?**

Ez. Badira taldea ezagutzen ez zuten bi gaztetxo estatubatuarak, nik kontzertura gonbidatu nituenak haien erreakzioak grabatzeko. Beste eszena batean Oihane eta bere gurasoak agertzen dira. Neska oso zalea da, baina gurasoak nekatuta daude alaba birako bederatzi kontzertuetara eraman ondoren.





### Zer du Berri Txarrak taldeak hain arrakastatsua izateko?

Ez dakit, baina ikusi dudana da buru-belarrari aritzen direla, berdin Kobetamendin 22.000 pertsonaren aurrean edo Los Angeleseko denda batean 50 lagunaren aurrean. Pasio hori oso polita da eta iristen zaio jendeari.

### Abestiak euskaraz izatea bada arazoa jendearentzat?

Ez dut uste, filmean ezagutu ditudan zaleentzat ez, guztiz kontrakoa. Jendeak letrak itzultzen ditu. Interneten oso erraza da. Lehenik musika iristen zaizu, gero interneten letra bilatzen duzu eta horrela are gehiago iristen zaizu kanta. Hardcore eta punk musika gustatzen zait niri eta nik ingelesez hitz egiten dut, baina batzuetan letrak ez ditut guztiz ulertzen, eta berdin zait. Musikaren energia da lehenbizi iristen zaidana.

### Dardara izena zergatik?

Asko kostatu zitzaigun izena aukeratzea. Musika dardara da eta musikaren bibrazio horrek beste dardara bat eragiten du jendearengan. Bere momentu gorenean taldea uzteak taldeari ere dardara eragingo ziola pentsa dezakegu eta bertigoa

sorrarazi dezakeen zerbait da. Dardara-k dikotomia moduko bat dauka, alde batetik indarra –musikarena eta birak eragin duena zaleengan– eta, bestetik, dardara hauskortasunarena edo zalan-tzarena. Erabaki zaila, etorkizunaren edo sorkuntzaren aurreko dardara...

### Zer garrantzi du zuretzat Dardara Ikuspuntu-Punto de Vista jaialdian mustutzeak?

Niri izugarrizko ilusioa egiten dit. Ez da xaboia emateagatik, baina nire jaialdi kuttunen da eta gainera zure hirian egiteak balio berezia du. Ikuspunturen eragina oso handia da Euskal Herrian eta nazioarte mailan. Ez fikziozko filmak eta beste erreferente batzuk bilatzen ditugun zinemagileentzako erreferentea da. Bere programazioa da gertuko jaialdi guztien artean gehien gustatzen zaidana eta haien artean egotea pasada bat da.

### Gero zer egiteko asmoa duzu?

Nafarroako Gobernuaren Generazine-ma programako dirulaguntza bat eman zidaten gidoi bat prestatzeko eta horretan ari naiz orain. Maitasunaren eta familiaren inguruko gogoeta bat da. Aitona hil zenean amonak bere Super 8

grabazioak eman zizkidan digitalizatzeko eta antolatzeko, eta gauza bera egin zuten nire bikotea izandako aitona mexikarraren artxiboarekin. Bat-batean irudi horiek nahasi ziren nire etxe-ko salan eta oso hunkigarria suertatu zen. Ordutik irudi haiek segika ditut. Jarraitzen naute. Nahi dut exorzizatu eta nire bizitzarekin jarraitu. Film berri honekin ez dut egin nahi familia hauen istorioa. Gogoeta bat da.

### Zertarako balio du zinemak?

Galdera zaila... Artea beharrezkoa da arima elikatzeko eta horretarako balio du zinemak. Hala ere, diskurtso utilitaristik, nire zalantzak badituzte eta galdetzen diot neure buruari ea benetan beharrezkoa den hainbeste diru balio duen zerbait, eta batez ere diru publikoa bada. Ez ote litzatekeen hobe diru horrekin hainbat pertsonari lagundu bere bizitza aurrera eramaten. Baina ez dut uste, adibidez, militarrek gastu militarra beharrezkoa ote den galdetzen dutenik. Beharrezkotasuna beti ezbaian jartzen da kulturaren inguruan. Eta Dardara horri buruz da: nola laguntzen dizun musikak zure bizitzaren une desberdinetan. ●

Martxokoa, kalean!

# EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?



- EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT
- BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT
- 10 ZENBAKI URTEAN

Urte osoko harpidetza | Hego Euskal Herria eta Espainia | 29€ • aizu.eus



# Iritziak

## Beste erreklamazio bat



ANA MENDIA  
EMAGINA

**E**sandakoa. Beste erreklamazio bat jaso dugu ospitalean. Orri bat gehiago kortxotik zintzilik. Pandemiaren kontua dela eta bikote-kideei haurdunaldiko ekografietara sartzeari debekatu diegu eta bidegabekeria hori salatzen du idatzi du aita batek.

Atentzioa eman dit kontaerak eta, ke-xaren motiboa ahazteraino ia, gizonak bere eskaera azaltzeko aukeratu dituen hitzetan jarri dut arreta. Eskutitzak dio emakumea "bakarrik eta babesgabe uztea" ez dela zilegi. Ez dakit, akaso ni naiz kontua esajeratu duena, baina diskurtsoari nolabaiteko arrasto susmagarria hartu diot. Disney-ko azentua edo. Segitu dut itxaropentsu irakurtzen *plot twist* txundigarriaren zain, baina idatzia bukatzerako irakiten hasteko puntu-puntu dagoen esne gordin sentitu naiz. Egia da lehenagotik ere berotuta nengoela ginekologo *influencer* batek Twitter-en idatzitako txio hau tarteko: "Telefono bidezko nire lehenengo erditzea artatu dut. Aita heroi baten gisan portatu da. Lasai eta bare. Bere semea atera duela kontatuko du. Literalki". Bota eta lasai geratu, gainera. Eskerrak! Eskerrak salbatzaile ahalguztidun bik libratu duten bataila, ze nekez erdituko zen aipatu ere egiten ez duen emakumea bestela. Nekez irtengo zen haurra bere kabuz hura ateratzeko bere aitaren balentriarengatik izan ez balitz. Hara, titietaraino nago heroiez. Manera onak dituztenez, batez

Eskerrak salbatzaile ahalguztidun bik libratu duten bataila, ze nekez erdituko zen aipatu ere egiten ez duen emakumea bestela

ere. Ezinbestean leherrarazten naute azken horiek.

Dena den, ez dut xede inor epaitzea, ze kontua ez da nork zer esan duen. Kontua da zerbaitek huts egiten duela pelikulan. Uste dut ahuleziak preziagarri egiten gaituela erakutsi digutela; uste dut ausardiak preziatu egiten zaituztela erakutsi dizuetela. Babesgabe gustagarriago gara; borrokalari gustagarriago zarete.

Parentesi bat, bide batez: zalantzatik abiatuta ari naiz idazten. Ez naiz soziologian aditua. Ez antropologian. Ez psikologian. Ez filosofian. Ezin, hortaz, gizakion jokabidearen inguruan inolako baliozko argibiderik eman. Askotan amorratzen naiz arratsaldetako debate *mainstream* horietan etxean erditzeko erabaki informatuaz tutik ez dakitenei hitza eman eta argudiatzen dituzten astakeriei nolabaiteko sinesgarritasuna ematen zaienean. Duda izpirik egon ez

dadin, beraz: pertza sutatik kendu eta epeletik jarduten ari den tertulia-kide bat naiz, besterik ez.

Agian, gustagarri eta preziatu izateko nahia bada naturazkoa. Finean, erabat hauskor jaiotzen den espeziea gara eta maitasunari zor diegu biziraupena. Maite ditugulako babesten ditugu gure kumeak. Funtsean elkarri lotzen gara etengabe. Dena da atxikimendu. Eta, beharbada, era berean da naturazkoa loturak dakarren elkarrekiko babesa. Aitzitik, normala ez dena da harreman heterosexualetan babes hori bilatu eta eraikitzeke dugun modua. Ze, babesak ez du heroismoarekin zerikusirik. Horregatik diot istorio erromantikoetako forma belikoaz gain babesak baduela beste molde bat. Babesa bada zaintza. Bada burujabetasuna. Bada errespetua. Bada konplizitatea. Bada askatasuna. Bada ardura. Bada konfiantza. Bada estimua.

Neronek ere, erreklamazioa idatzi duen aita bezalaxe, haurdunaldia zuen kontua ere badela uste dut. Eta, horregatik, ekografietara ez ezik, bestelako hitzorduetara ere nirekin etor zaitezten nahi dut. Baina ez zaitut bizkartzain behar. Ez dut bozeramailerik behar. Ez dut heroirik behar. Ez dut nire hobe beharrez erabakiko duen inor behar. Ez zaitut behar bidea urratzen nire aurretik. Aldamenean nahi zaitut. Epairik gabe. Presente. Adi. Maitekor. ●



# Zenbat jende kabitzen da bihotz batean?



**ANE ABLANEDO  
LARRION**  
IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA

**A**sko, ezta? Bai, jende asko maite dugu, eta pertsona bat baino gehiagorekin gaude afektuz lotuta, garbi dago. Maita dezakegun jende kopurua ez da mugagabea, hori ere egia da, maitasunak lotura galdegiten duelako, eta loturak denbora, baina tira; maitasuna jende askori zabal dakiokeen sentimendua dela, gu guzión esperientziak eta bizipenek ongi frogatutako egitatea da.

Gehienek, dena den, galdera maitasun erromantikoari buruzkoa zela pentsatu izanen duzue. Hala ulertuta, goiko baieztapenetik salbuetsi egingo zenukete batzuek beharbada maitasun “mota” hori, bikotearen esparrua maitasunaren zabal-tasun horretatik kanpo utzi beharrekoa dela pentsatzen duzuelako. Baina egongo zarete, noski, ñabardurarik gabe baieztapena bere horretan utziko zenuketenik ere. Gabo idazleak poetikoki ongi adierazi zuen bezala, bihotzak putetxe batek baino gela gehiago dituela pentsatzen duzuelako, edo besterik gabe, hori aitortzeko behar den bezain zintzo edo ausart zaretelako.

Hala ere, erantzunetan baino gehiago, galdera horri (Aran Santamaria artistak bere erakusketa berriari jarritako izena dena, bide batez) hartzen diogun norabide bakarreko zentzuan jarri nahi nuke oraingoan azpimarra. Zergatik den beti

bikotearen maitasuna, *bihotza* hitza entzutean gogora etortzen zaigun lehena. Edo zergatik dugun hain barneratua, bikotekideak direla gure bihotza habitatu dezaketen pertsona garrantzitsuenak. Izan ere, bihotzarena maitasun gorena-ren metafora dela jakinik, hori baino ez baitu adierazten bien arteko lotura hori hain errazki egiteak.

Eta ez da ttipikeria. Afektuen hierarkia dagoela erakusten digu, eta sexualizatutako maitasuna dela hierarkia horretan beti postu gorena okupatzen duena, horrek dituen inplikazio guziekin. Maitasuna banatzeko eta jasotzeko ekitaldietan, beti ateratzen baitira galtzaile afektuak hartzen ahal dituen beste forma posibleak, lagunen artekoak, nagusiki, baina baita komunitateko partaideen artekoa ere adibidez, edo zer esanik ez, geure buruarekikoa. Aski balioa ez dutelakoan, gure bizitza afektiboaren erdigunean ere beharko luketen harreman guzi horiek gutxietsi egiten dira, eta horregatik, gure denboraren, arretaren eta zaintzaren huskeria baizik ez diegu normalean eskaintzen.

Gure ongizate osoaren esperantza bikotearengan ezartzen dugu, eta ulergarria da zentzu honetan, maitasun erromantikoaren paradisu horretara iristea izatea jende asko eta askoren utopia na-

gusia, hori baino ez izatea aspirazio eta espektatiba ororen jomuga, erromantizatutako harreman horien esku uzten eta irudikatzen ditugulako gure ongizatearen ardura guziak: berezi sentiaraztea, arazoak konpondu eta asperdura kentzea, gure hutsuneak betetzea, beharrak oro asetzea, gudan ez daukagun seguritatea, estimua eta egonkortasuna ematea, emozio intentsuak eskaintzea, eta nola ez, betiko izan dadila!

Zoriontasun betearen zina egin zaigun arren, eta egin zaigulako, frustrazioa, dezepzioa eta iruzurraren sentsazioa izaten da gehiegitan, paradisura iritsi izanaren zoria duenak topatuko duena, inork ezin duelako tamainako funtzioa arrakastaz bete.

Maitasun erromantikoaren mitoak suposatzen duen tranpa ikusarazteko, gure kide sexuaferktiboekin erlazionatzeko ditugun moduak aldatzen saiatu baino lehenago beharko genuke bikoteak gure bizitza afektiboan duen zentralitatea ikusi, eta salatu. Afektuaren hierarkia eraitsiz, sare afektibo horizontalak ehundu ahal izan ditzagun gure maitasun handiaren matzarekin. Disidente sentimental izan nahi badugu, has gaitezen gure jende guzia ongi maitatzen eta zaintzen. Hor hasiko da afektuen iraultza. ●

## Korapiloa



**AMANCAY  
GAZTAÑAGA**  
AKTORE ETA  
ZUZENDARIA

**L**otu, heldu, korapilatu mihia. Ez dezala ihes egin, ez dezala tarte txiki bat ere topatu non libre mugitu daitekeen. Ez dezala dastatu, inoiz, askatasuna. Lotu, heldu, korapilatu mihia. Domestikatu. Esan dezala bai, beti bai eta ados nago. Ados nago, nitaz-gutaz ematen duzuen irudiarekin, ados. Ados nago zuen begiradak nitaz esaten duenarekin. Ados nago gu fikzionatzeko duzuen modu horrekin, era horrekin.

Lotu, heldu, korapilatu mihia. Izan dadila fin, izan dadila baikor, izan dadila ni ez naizen hori, izan dadila beste batena, izan dadila beste batena, izan dadila beste batena: zurea, gizon. Beti zurea.

Zurea bada nire mihia, bai esango diot estereotipoari, baietz esango diot emakume pertsonaiei jazarritako lanei, kezkei, minei, nekeei. Beti zuretik, ez niretik, zurea bai da mihia eta bozgorailua, beti zurea.

Zuk ezarria korapiloa.

Hortzekin laztandu dut nire mihia, poliki, emeki, hortzekin laztandu dut korapiloa. Buelta eman diot, ezkutuan beti, intimitatean, ez dezala inork sumatu zertan nabilen. Kontuz! Ez dezala inork sumatu mihia askatzen ari naizenik. Hortzekin laztandu dut emeki eta krask! kosk egin diot korapiloa mantentzen

zuen zatiari. Momentu katartikoa, odolaren zaporeak eztarritik behera ahots kordak laztantzen ditu, tripetara iritsi arte. Lasai nago, bai badakit, mihiak berriz hazteko gaitasuna duela. Nire amona Maritxuk irakatsi zidan hori.

Ezkutuan mantendu dut zauria, inork ez dezala sumatu zer egin dudana. Orain korapilorik gabeko mihi zauritu baten jabe naiz. Lasai nago, badakit mihiak berriz hazteko gaitasuna dutela, amona, zuk irakatsi zenidan hori.

Esango dudana, trakets esango dut. Oraindik ez bainaiz trebea. Oraindik hazten ari baita moztutako zatia. Oraindik korapiloaren oroimena gertu baitago. Esango dudana trakets esango dut, baina esan egingo dut:

Euskal Herrian egiten den fikzioaren %92a gizonen buruetatik irteten da. Euskal Herrian sortzen diren pertsonaia femeninoen %92a gizonen eraiki dituzte. Eta ez, aktore, zuzendari eta sortzaile bezala ez nago ados. Ez ditut gure sentitzen zuen erak, zuen normak, zuen formak.

Esan dudana trakets esan dut oraindik ez bainaiz trebea baina lasai nago, baidakit, mihiak berriz hazteko gaitasuna dutela. Nire amona Maritxuk irakatsi zidan hori. ●

## Normaltasun demokratikoan



**ITZIAR BARDAJI**  
GOIKOETXEA  
IRAKASLEA

**N**ormaltasun demokratikoan herriak protesta eskubidea hiritartasunez erabiltzen du. Modu baketsuan preso politikoen askatasuna edo herrien autodeterminaziorako erreferenduma eskatzen da eta ez da ezer gertatzen –errepresioa baino–. Normaltasun demokratikoan elite politiko eta ekonomikoek herriaren prekaritatea inposatzen dute. Normaltasun demokratikoan manifestazioek, grebek eta hauteskundeek ez dute eraginik eta estatuaren errepresio sistemak adierazpen askatasunaren –askatasun ororen– marra gorriak behin eta berriro igarotzen ditu.

Normaltasun demokratikoa jasangaitza delarik kaleak eztanda egiten du: beren eskubideen gain eragiteko tresnaz gabetutako herriaren parte batek normaltasuna apurtzen du. Ez al da biolentzia deitzen duten hau normaltasun demokratikoaren berezko biolentziaren adierazpen soil bat?

Kontainerrek eta furgoi polizialek su hartzen dutenean, normaltasun demokratikoaren babesleek protestaren formak salatu besterik ez dute egin nahi. Baina gizarteari, hedabideei eta eragile politikoei istiluak eragin dituzten arrazoiei begiratzea dagokigu, ordea. ●



# Bizirautea ala osasuna?



MAITE FERNÁNDEZ LANDALUCE  
FILOSOFIA IRAKASLEA

**Z**enbat denbora irauten du larrialdi-egoera batek? Larrialdi-egoera bat denboran asko luzatzen bada... larrialdi-egoera izaten jarraitzen du?

Zenbat denboran da zentzuzkoa biziraupena beste guztiaren aurretik jartzeari, baita osasunaren aurretik ere?

Zer da osasuna? Zer da bizitza osasuntsua?

Zaila dirudi benetan osasuntsu egotea sozializatu gabe, ezta? Zaila ere benetan osasuntsu egotea lasaitasunik gabe, beldurrarekin eta mehatxupear bizi denean....eta duintasunik gabe? Posible al da osasuntsu egotea, duintasunik gabe? Osasuna egon daiteke aukeratzeko gaitasunik ez baldin badago?

Badirudi horiek guztiak atzeratzen ari garela –sozializazioa, lasaitasuna, erabakitze gaitasuna...– biziraupenaren mesedetan.

“Bueno, baina honakoa larrialdi egoera da!” Diote. Baina noiz arte dauka zentzua horrelako erabaki bat luzatzeak, premiazkoa dena beste guztiaren aurretik jartzeak, baita osasungarria denaren aurretik ere? Noiz arte?

Eta osasun kolektiboari dagokionez... zertan datza gizartearen osasuna? Zer da gizarte osasuntsua?

Esango nuke gizarte osasuntsu batek bere gazteak zaindu behar dituela, zaharrek zaintzen dituen adina behintzat.

Ba ez gara horretan ari.

Esango nuke gizarte osasuntsu batek asko zaindu behar dituela hezkuntza eta kultura.

Horretan ere ez gara ari.

“Larrialdi egoera da”, diote. “Beharrezkoa da lehenestea”, diote. Zenbat denboran? la urtebete daramagu horrela. Eta uste dut gehienok jakin badakigula hau ez dela amaituko behin txertoa jarrita

Gizarte osasungarri batek sozializazio-esparruak bermatu eta zaindu behar ditu.

Ez gara ari.

Gizarte osasungarri batek lanari bezainbesteko garrantzia –edo handiagoa akaso– eman behar dio kulturari, prestakuntzari eta aisiari.

Ez gara ari.

Gizarte osasuntsu batek bere ingurune naturala zaindu behar du.

Ez gara ari.

... are gehiago esango nuke... adinekoak zaintzea senideen bisitak ukatzea dela uste duen gizarte bat; adinekoak babestea bakardadean hiltzen, musurik eman gabe, eskua hartu gabe uztea dela

uste duen gizarte...horrelako gizarte bat ez al da jada gizarte gaixo bat izango?

“Larrialdi egoera da”, diote. “Beharrezkoa da lehenestea”, diote. Zenbat denboran?

Ia urtebete daramagu horrela. Eta uste dut gehienok jakin badakigula hau ez dela amaituko behin txertoa jarrita.

Biziraupenetik haratago, bizitzara itzultzen noiz utziko diguten zain gaude. Larrialdi-egoera utzi eta bizitza –bizitza osasuntsua– berriro erdigunean jartzeari erabakitzen duten arte itxaroten ari gara. Baina uste dut jakin badakigula ez dutela horrelakorik erabakiko, epe motzean behintzat. Ez eremu horira jaitsita ere, ez maskara jantzita ere, ez etxeratzeari agindua errespetatuta ere, ezta txertoak jarrita ere... orduan, zenbat denbora gehiago itxarongo dugu?

Parentesian gelditu diren bizitza horiek geure bizitzak baitira, danonak. Bizitza –osasungarria edo ez– gutako bakoitzarena da. Eta, gizarte hori –osasungarria izan ala ez– guztiok osatzen dugu.

Zenbat denboraz geldiarazi daiteke bizitza bizirautearen mesedetan?

Ulertzen dut bizitza osasungarri baten aspektuak denbora luzez alde batera uzteak ezinbestean bizitza gaixora eramaten duela. Inolako zentzurik ba al dauka orduan, bizitza osasuntsua luza-roan uzteak, bizirauteko?

Itxaroten jarrai dezakegu, edo, agian, garaia da honezkero uler dezagun erabaki horrek batez ere geurea izan behar duela. Ezinbestean. ●

# Ez dut ikusi



**NEREA IBARZABAL SALEGI**  
BERTSOLARIA

*Ez dut ikusi biziak dituenik  
abailtzenago  
hildako gorputz baten gelditasun  
apalak baino*

Rosalía de Castro

**B**idean ageri da heriotza, han-he-menka, zaparrada bat izango denaren aurreneko tanta lodiak hasten dira ugaritzen urteek aurrera egin ahala, inguruan zein etxean, ume berrien etorrerari buruzko albisteekin nahastean. Telefono dei baten ostetik iristen dira betirako oroituak dituzun datak, medikuen abizenak eta eguraldiak, hemendik aurrerako egutegi guztietan agertuko zaizkizunak, egutegi beharrik gabe. Berroa, elurtea, hego haize ikaragarria, euri langarra egin zuen goiz hartan, inoiz ez bezalakoa, inoiz ez ahazteko modukoa. Alkandora hura zeneraman soinean, aurreko egunean mila gauza egin zenituen, halakorik susmatu ere egin gabe, bilera bat, erosketak, korrikaldi bat polikiroldegian, orain beste esanahi bat hartu dute denek.

Heriotzan pentsatzea da unibertsoaren amaiezintasunean pentsatzearen antzerakoa, handiegia okelaz eginda-

Pertsona nagusi  
bat ikusi dut bere  
gaztaroko argazkiei  
begira, atzamarrarekin  
argazkiko lagun  
paparrak zapalduz, "hau  
hilda dago, eta hau ere  
bai, eta hau, gizajoa"

ko buru-muineak ulertzeko, ez da kabitzen burezuraren barruan hainbesteko zabalerarik. Propio eginda egongo da, beharbada: ez diezaiegun eskaini egunean pare bat minutu baino gehiago halako galdera handiei, jaitsi gaitezen geure eskuetan kabitzen denaren tainnara. Segi lanean, segi sinesten, segi lo hartzen eta esnatzen, ezer gutxi du zentzua, Marten 100 km orduko abiaduran dabil haizea inork grabatzen ez duenean ere, Ameriketara orain gaua da, zu hemen ez dagoen pertsona baten ahotsa entzuten ari zara aspaldiko bideo batean, gehiago entzungo ez

den ahots bat, halako forma duen ahots-kordarik ez delako sortuko mundura berriro. Zorteduna zu, zure alboan sortu zelako.

Pertsona nagusi bat ikusi dut bere gaztaroko argazkiei begira, atzamarrarekin argazkiko lagun paparrak zapalduz, "hau hilda dago, eta hau ere bai, eta hau, gizajoa", eta sentitu dut bere besoetako eta sorbaldeetako hotza nireetan, husten joan den mahai-inguru bateko bakardadea, ogi papurrak mantellean. Heriotzak erakusten die begiei agur esanez bezala begiratzen. Noizbait, mahai-inguruko denak argazki bihurtutakoan, besteren batek heldu beharko dio irudi horri, beharbada nik, jakin gabe zein egun izan zen hura, zergatik elkartu ziren, zein zegoen kameraren beste aldean. Oroitu egin beharko dut beste egun hau, azalpenak entzun nituenekoa, haxe izango da inork atera ez digun argazkia, grabatu gabeko bideoa. Horrelako gauzak kabitzen dira okelatan, lauso bada ere. Besterik ez. Egia potoloren bat ikasteko jaio garela pentsatu nahi izaten dut batzuetan, eta hori ezagutu arte ez garela hilko. Gero ohartzen naiz ezetz, heriotzak gutxitan harrapatuko zaituela prest. ●

**tradebi@tradebi.com**

**DATU PERTSONALEN BABESA**  
**EUROPAKO ARAUTEGIA**

Zure enpresa egokitzen  
lagunduko dizugu

**SIGACUS**

☎ 943 453 588 · [www.sigacus.com](http://www.sigacus.com)

**Benetako  
antzinako ogia**

☎ 943 450 966  
Ubarburu pasealekua, 113  
Astigarraga (Gipuzkoa)



## Osasun neurriekin

# KOMUNITATEAK KALEAN BIZI BEHAR DU

“Normaltasun berri” honetan oso mugatuta dago bizitza komunitarioa eta ia “bekatu” bihurtu dira pertsonarentzat beharrezko diren harremanak, plazerak eta errituak. Baina badira pandemiaren hasieratik osasun neurrietara egokituta sortu edo mantendu diren hainbat ekimen komunitario. Horietako hiru ezagutu ditugu: Altzoko kultur jarduera, Egia auzoko elikadura azoka eta Bilboko Alde Zaharreko etxebizitza sindikatuaren lana.

 ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA  ALTZOKO UDALA

**O**sasun integrala izan behar dugula helburu azaldu du Kontxi Alicostes psikologoak, hau da, Osasunaren Mundu Erakundeak definitzen duenez, pertsona baten ongizate fisiko, emozional eta soziala: “Pandemia honetan konfliktuan daude osasunaren bi ikuspegi horiek, alde batean heriotzak ekiditea eta beste aldean osasun integrala lortzea. Osasun integrala ahaztuta egon da erabat, bere dimentsio sozialean batez ere”. COVID-19az kutsatzeko zero arriskuak ez duela existitzen nabarmendu du eta beraz, osasun integrala lortzeko, kutsatzeko arriskua etengabe balantzan jarri behar dela, hartzen den arriskua eta irabazten dena ponderatuz: “Osasun integralak ez du esan nahi erabateko zoriontasuna lortzea, osasun integralak esan nahi du garapen on bat edukitzea eta psikologikoki ongi egotea, oreka

batean: egun batean okerrago eta batean hobeto, eta norberaren bizitzaren zentzua ez galtzea. Zeren egoera honek arrisku handia baitu edozein gauzarekin desidentifikatzeko. Ez dut esaten ez denik babes neurririk hartu behar, baizik, zenbait gauza egin, egin behar direla. Baina pentsamendu bakarra zabaldu da eta hori oso arriskutsua da: beldurra dago posizionamendu bat azaltzeko, nahiz eta oso zentzuzko gauzak esatera mugatu, negazionistatzat joko zaituztelako”. Iraganeko bizitzarekiko nostalgia kateatuta geratu gabe, nola bizi behar dugu orain? Etxean sartuta egon behar al dugu, edo komunitateko bizitza berreskuratu, egoera berrira egokituta?

Duela ia urtebete jada, konfinamendutik irten orduko planteatu zituzten galdera horiek eta gehiago Altzon, herri mailan. “Apirila-maiatzean Kultura Batzordean bilera telematikoak egiten hasi

ginen. Jai Batzordean ere galdera zebilen ea festak egin behar ziren edo ez, Udalak ere bazituen bere kezakak horren inguruan... Beraz, udalkideak eta eragileak – guraso elkarteak, jai batzordeak, emakume taldea, Elordi elkarteak...– biltzea adostu genuen”, azaldu du Jexux Murua Kultura Batzordeko kideak. Ekainean egin zen batzar hori, modu presentzialean. Lorena Uriarte Altzoko Udaleko zinegotzia da eta batzar hartan egon ziren jarrera ezberdinak gogoan ditu: “Baziren beldurrak eragindako jarrerak: jende pilaketak saihesteko nola egingo dugu? Festak egin edo ez?”. Ikuspegi ezberdinak izanagatik, adostasun batera “erraz” iritsi zirela diote, eta horrek jarri zuela oinarria urte osoan ekitaldiekin zer egin erabakitzeko.

Uriartek gogoratu du zein planteamenduk lortu zuen adostasuna: “Zergatik ez dugu ekintza horiekin aurrera jarraitzen baina egun gutxitan pilatu beharrean udan zehar zabaldua? Hori nahiko ongi iruditu zitzaigun guztioi. Baina festa sentsazioa, San Inazio eguna bazela ere bizi nahi genuen. Egundorretan bi ekintza jarri genituen, bihar ramunerako bat... jendeak sentitu zezala festak ere bazirela”. Hori bai, urte osoko festa guztietako otorduak kendu zituzten.



## "FESTAK" ETA JARDUERAK

Herri gehienek joera izan da ohiko ekitaldiak bertan behera uztea eta egungo egoerara egokitutakorik ia ez egitea. Muruak horrela azaldu du zergatik erabaki zuten Altzon hasieratik festa eta kultur dinamika sendo eustea, pandemiara egokituta: "Herriarrok sozializazioa eta herri bizitza mantentzeko beharra dugu-lako, egoerak eskatzen dituen baldintzen barruan, noski. Hasieratik kontziente ginen gaitz hau ez dela broma, serio hartu beharreko kontua dela. Baina baita ere kontziente ginen gure herriaren ezau-garriez: herri txikia da, eremuz zabala, eta beraz, aukerak ematen dizkigu. Ez genuen festetan sartu nahi, baina ez genuen ez-festen katramilan ere sartu nahi. Ez genuen kanpoko jendea ekarriko zuen ezer egin nahi, herritarroi gure bizitzekin jarraitzeko aukera bat eman baizik".

Ekimenei eutsi edo ez erabakitzerakoan, kultur sortzaileen bizitzak ere pisu handia izan zuela gogoan dute Uriartek eta Muruak: "Horrela esaten genuen: ez ditugu ekitaldiak eten behar, batetik gure buruarentzat mesede izango delako jarraitzea, eta bestetik bere jarduerak sorkuntzan eta kulturaren oinarrituta duten eta oso beharrezko den jende horren alde". Herri Batzar hartan adostu zuten egun seinatuetan ekintza puntual bat

egitea eta hilero herri bizitzari eta kulturari jarraipena ematea. Muruak "normaltasun berria" kontzeptuarekin lotu du Altzok urratutako bidea: "Hasieratik esaten genuen, 'normalitate berria' etorri zain ez gara egongo, ekarri egin beharko dugu, ezta? Normalitate hori eraiki egin beharko dugu gure artean".

Antolatu dituzten ekintzetan zorrotz zaindu dituzte prebentzio neurriak: "Espazio seguruak sortzen saiatu gara. Ekitaldietarako ez dugu sarrerarik ko-bratzen baina tiketa bai hartu behar da aforoa zaintzeko, jende askok hartu du parte publikoa ordenatzen eta sarre-ra-irteerak antolatzen, denok maskara jantzita eta tarteak errespetatuta egoten gara, ahal izan diren ekitaldi guztiak kanpoan antolatu ditugu... nik uste jendea konfiantza eman diola horrek ere, 'gauzak ongi egiten ari gara' sentitzeak", Muruaren hitzetan. Entzun izan duten kontrako argudioa da, kultur ekitaldi baterako 80 lagun elkartzeko badira ondoren denek tabernara joko dutela eta han pilatuko direla. Murua: "Hor sartzen da pertsonaren senarekiko sinesmena. Zergatik ez dugu heldu bezala tratatu behar jendea? Pandemiaren hasieratik sentitu dut ume bezala hartu gaituztela denak. Ni Altzoko plazan bakar-bakarrik baldin banago, ez dut sentitzen maskara jantzi-

ta egoteko premiarik eta ez dut uste inor izorratzen ari naizenik, alderantziz, nire buruari mesede latza egiten ari naizela pentsatzen dut. Baina aldi berean, elkar-rizketa hau egiten ari bagara, badakit jarri behar dudala. Oso gauza sinplea da".

Zorionez ez zaie kultur ekitaldi horietan kutsatzerik egokitu. "Baina nola dakizu noiz harrapatuko zaituen? Non? Nola? Lanean, erosketak egiten, elizan edo etxean, nonahi dago arriskua. Ez dago jakiterik, eta denok dugu inguruan adibideren bat. Gaitza hor dabil eta salbu-salbu ez gaude inon. Ez dut uste perspektiba galdu dugunik, eta axolagabekiaz ari garenik. Ez diogu bizkarra eman gaitzari, aitortu diogu bere indarra, baina aurpegia eman eta ahalik eta bizitza osoena egiteko saiakera egiten ari gara. Badakigu ezin dugula ibili nahi dugun bezala, baina gauzak egin daitezke, eta frogatzen gurean egin den ekintza mardoa", nabarmendu du Muruak. Hogeita lau ekitaldi baino gehiago egin dituzte, mota guztietakoak: mahai-inguru, pilota txapelketa, zuhaitz landatze, bertso saio, mural pintaketa... San Juan festa izan zen moldea aldatuta antolatu zuten lehenengotako ekintza: "Beste urteetan sua egiten da frontoi ondoan, herriko dantzariak ateratzen dira eta herritar batzuk mendialdetik jaisten dira sor-





ginak irudikatuz, akelarre moduko bat eginaz. Eta bertsoak ere kantatzen dira”, azaldu du Uriartek: “Iaz, sua egin zen eta dantza ere bai, baina sorginen jaitsiera ez zen egin. Eta jendea bertsolariak entzuteko aukietan eserarazi genuen”.

Horrela hasi ziren, pixkanaka, uztaila bukaera arteko programazioa lantzen, eta ondoren urrikoa, eta abenduko... urte osoan herriko bizitza mantentzea helburu hartuta.

### BEHAR DIRA, GERO ETA GEHIAGO

Uriartek azaldu du hasieran kulturleak bultzatzeko modu gisa bizi zituela ekimen hauek, baina azken aldian pertzepzioa aldatu zaiola: “Uste dut gure buru osasunerako oso ongi datozkigula. Orain erabat jasotzen ari naiz, bizirau-teko inoiz baino beharrezkoago ditugu horrelako ekintza batzuk, egutegia ere markatzen digutenak eta orientatzen gaituztenak, egun guztiak ez direla berdin sentiarazten digutenak”. Muruak berretsi du Uriarteren sententzia hori orokorra dela: “Urtero abenduan astebe-tez kultur ekitaldiak antolatzen ditugu, *Olentzerotan jakinminez* zikloan. Iragan abenduan behin ere baino jende gehiago



ibili da. Uste dut jendeak asko eskertzen zuela arrazoi bat izatea etxetik ateratzeko eta elkarri begietara begiratzeko. Emozioak pixka bat mugitu, elkarri kontu batzuk esan... eta ‘herriko mugarriak’ bezalako gaiak ziren! Aldiro 30 lagun etorri ziren. Nik uste 400 biztanleko herri batean asko dela, mugarriei buruzko hitzaldi bat entzutera etortzeko”.

Alicostes psikologoak azaldu du elkarrekin pentsatzeko guneak, adibidez mahai-inguru horiek, oso garrantzitsuak direla: “Pandemian bizitzeko moduari buruzko hausnarketa norberak bakarrik egitea oso zaila da, kontrastea behar da”. Eguneroko lanean ikusten dituen kasuen artean, kezkatuta dago fobia sozialeko eta pantailetako jolasekiko menpekotasun

## AZET: Defendatzen gaituen komunitate bat izateko beharra

**B**ilboko Etxebizitza Taldea (AZET) justu konfinamendu garaian sortu zen, “eta ez kasualitatez”, bertako kideek azaldu dutenez. Hausnarketa orokor batetik abiatu ziren: “Egungoa osasun krisitik harago krisi sistemikoa da. Hau langileriaaren pobretze bat da eta oinarritzko beharrak asetzeko zailtasun handiagoak ditugu, adibidez, etxebizitza edo elikadura. Intuzio honetatik abiatuta eta gure auzoko elkartasun sarean parte hartu ondoren, ikusi genuen une honetan etxebizitzak zentraltasun handia izango zuela”. Etxebizitzaren arazoa politizatzeke eta behar indibidualei modu kolektiboan erantzuteko beharraz gain, beste oztopo batekin egin zuten topo: “Isolamendua eta indibidualizazioa. Bizi garen gizarte kapitalistaren oinarri estrukturala da, baina konfinamenduan are nabariago egin da”. Uste dute testuinguru horretan kolekti-

boki lan egiteak ekarri diela arrakasta: “AZETera hurbildu garenok familia politiko bat aurkitu dugu, konpromisoa hartzen duena inor bakarrik atzean ez uzteko. Batzuentzat lehen aldia izan da familia politiko baten parte sentitu direna”.

Jendearengana iristea ez zaie oso zaila izan: “Etxebizitza sindikatu moduan hasi ginen eta gugana datozenak etxebizitzarekin modu ezberdinetako arazoak dituzten pertsonak dira. Jendea gurekin harremanetan jartzeko telefono zenbaki bat eta helbide elektronikoko bat ditugu, eta haiengana heltzeko, sare sozialez gain saiatzeko gara gure auzoetako kalean ikusgarri egoten kartel eta pankarten bidez. Baina jendeak AZETera iristeko duen modurik ohikoena ahoz ahokoa da”.

Arazo edo kasu bakoitza lantzeko lantalde bat dute eta ostegunero asanblada orokorrean batzen dira AZETeko militante eta kaltetu guztiak. Alerta egoeran ere aurrez aurreko asanbladei eustea erabaki zuten, “asanblada hauetan ikusten delako sindikatuaren benetako lana eta agerian geratzen delako gure filosofia: Asanbladen bidez, gure kideek ikusten dute haien arazoa ez dela indi-

biduala”. 40 lagun inguru batzen dira asanbladatan eta osasuna bermatzeko neurri guztiak hartzen dituztela nabarmendu dute: maskara, segurtasun distantziak, gela, leihoak irekitzea, aforoak errespetatzea...

### “KALEA UZTEN DUEN HERRIA...”

Asanbladez gain, auzolanak eta lanegunak burutu dituzte auzoetako plazetan, modu horretan etxebizitzaren arazoa ikusarazteko eta jendea mobilizatzeko. Kalean elkartzea “guztiz beharrezkoa dela” uste dute: “Hasieratik hartu dugun erabaki politikoa izan da, argi dugulako kaleak uzten dituen herria borroka uzten duen herria dela. Horregatik erabaki genuen asanbladak kalean eta plazetan egitea. Batetik, gure lanarekin aurrera jarraitzeko modua zen, garai hartan aforoak oso txikiak zirelako eta biltzen ginen espazioak txiki geratzen zitzaizkigulako. Ulertu genuen seguruagoa zela kalean biltzea. Bestetik, momentu horretan ez geneukan beste aukera handirik: telematikoki lan egitea ezinezkoa zen, jende askok ez duelako erremintarik eta gaitasunik. Eta hirugarrenik, osasun krisia-



koadroak areagotu eta ugaritu egin direlako: “Orain horrela bizi daiteke. Gainera teknologia salbatzailea izan da, orain diabolikoa sozialki harremanetara bihurtu da. Eta hori da ni asko kezkatzen nauena. Zeren gizakiok harremanetan garatzen gara, harremanetan sortzen dira gure arazoak baina harremanetan konpontzen ditugu”. Komunitatean eman eta hartu

egiten dugula eta horrek asko laguntzen duela azaldu du, “sentitzen dugulako ez gaudela bakarrik”. Kultur jarduerak, izan musika, antzerkia, dantza... gure emozioekin lotzen gaituztela adierazi du eta horregatik dela garrantzitsua horrelako ekitaldietara joatea: “Nahiz eta etxean goxo egotera ohitu eta irteteko nagia sentitu, nahiz eta... joan”. Erosotasunari

kontra pixka bat egin behar zaiola dio: “Ongizateak ez du konforta bilatu behar. Ongizatearen helburua garapen on bat lortzea da”. Bizitzarekiko lotura sendotzeko, plazera ematen duten gauzak egiten saiatzea gomendatu du: “Plazera sentitzeak psikologikoki bizirik mantentzen gaitu, eta espeziea ere plazerak mantentzen du! Dibertsioa ere beharrezko da, orain agian beste era batera lortuko duzu, baina lortu, ez utzi alde batera”. Gizartean orokorrean aldarte goibela zabaldu den honetan, depresioan direnei jartzen dien ariketa ekarri du gogora: “Lehen zer egitea gustatzen zitzaizun? Bada horixe egin behar duzu, astean bitan. ‘Baina ez diot lehen ateratzen nion gozamina ateratzen’ esaten dute, ados, baina berdin da. Zeren ariketa hori ez da oraintxe bertan plazera hartzeko. Baina egite horretan, hartuko diozu berrirori”.

Erritualak ere beharrezko direla azpimarratu du: “Urtaroengatik ez balitz, erritualik eta festarik gabe sentsazioa da beti berdin gaudela eta horrek desbitalizatu egiten du. Psikologikoki oso garrantzitsuak dira errituak, zeren erritu guztiek dute zentzu bat, zerbait jartzen dute baloreen eta fase batetik bestera pasatzeko

ren ondorioz ezartzen ari dizkiguten mugak eta debekuak salatzen. Gure jarduera politikoarekin jarraitzeko oztupoak jartzen dizkigute, baina bitartean etxegabetzeak eta etxe jabeen gehiegikeriek bere horretan jarraitzen dute. Argi genuen ez genituela gure kideak bakarrik utziko eta biltzen jarraitzea erabaki genuen”.

Etxebizitzaren behar materialek abiatuta, helburua komunitate bat sortzea dela azaldu dute: “Etxebizitzaren borroka, bitarteko bat da guretzat, sistema honetan topatu dugun arrakala bat. Baina helburua borrokarako komunitate politiko bat eraikitzea da. Hau guztia ezinezkoa da egunerokotasunean eta aurrez aurre, espazio formal zein informalean egiten den lanik gabe. Espazio hauek ematen digutelako aukera elkar ezagutzeko, elkar zaintzeko, konfiantza lortzeko...” azaldu dute, eta langile klasearen behar materialei erantzuteaz gain, behar subjektiboei ere erantzuten saiatzen dira: “Defendatzen zaituen komunitate bat izateko beharra, eta isolamendua apurtzekoa”.

AZET garatu ostean, Asetu Herri Bilde-



**ASANBLADA KALEAN.** Larrialdi egoeran ere asanbladak aurrez aurre egiten jarraitzea erabaki du AZETek. AZETEK UTZIA

gia zabaldu dute: “Guretzako etxebizitza ez dira lau horma, langileok gure bizitzaren alderdi guztiak erreproduzitzen ditugun tokia baizik. Praktikan, ikusi dugu etxebizitzaren arazoa ez dela inoiz modu isolatuan agertzen. Normalean, oinarriko behar materialekin guztiz lotuta dago eta garbi ikusi dugu alokairua ordaintzen uzten den azkenetariko gauza iza-

ten dela, gure kide askok jateari ia utzi diola alokairua ordaindu ahal izateko”. Horrela sortu zuten Asetu Herri Biltgia, oraingoz elikadura eta higienezko lotutako behar materialei erantzuten diena, “baina denborarekin gure asmoa da Herri Biltgia beste behar batzuetara zabaltzea: eskola materiala, arropa edo dena delakoa”. Behar materialak kolektiboki asetu nahi dituzte, asistentzialismoan erori gabe: “Guk egiten duguna klase elkartasuna antolatzea eta hauspotzea da, justu asistentzialismoaren aurkakoa. Klase elkartasunak bilatzen du kalitetua subjektu politiko bihurtzea, bere arazoa kolektibizatu eta politizatzea... Horregatik, sindikatuaren helburua, kasu zehatzak konpontzeaz gain pertsona horren politizazioa da, komunitate politikoan partaide bihurtuz”.

Beldurraz galdetu diegu: “Biltzeari uzten badiogu, datorren arriskua agian bestea baino handiagoa da... ez zaio beldurra galtzen, baina COVID-19az harago jendeak beste arazo batzuk ere baditu eta konpondu behar ditugu”.



## AZOKA TXIKIA

## Konfinamenduan hasi eta egonkortu den elkargunea

**D**onostiako Egia auzoko azoka Txikia egiteari martxoan ekin zioten, konfinamendu erdian. Igeldoko esne ekoizle batek auzotarrengana jo zuen, tabernak itxi zirenez esnea saltzeko arazoak zituelako, eta auzoan aspalditik zegoen gogoia piztu zuen: izan ere, auzoko Plaza Berriri bizitza emateko eta erabilerak berreskuratzeko asmotan zebiltzan azken urteetan. “Gainerakoan, plaza hau hutsik egoten da, bereziki triste. Espazio publikoa berrartzea garrantzitsua da”.

Astelehen arratsaldero ordu eta erdiz egiten den Azoka Txikia elkarlanean antolatzen ari dira Azoka eta Auzo Elkartea, eta oso eskertuta kontatu dute Behemendik asko lagundu diela hasieratik, azoka sortzen. Eta modu naturalean sortu eta egonkortu egin den azokaren espazio hori baliatu nahi dute herri mugimenduari eta beste eragile batzuei ere esparrua emateko: “Batuketa polita suertatzen ari da. Astelehen askotan hemen egon da Euskaraldiko materiala, dispartzioaren aurkakoa, Gordegia artxibo historikoko postua, maizterren sindikatuak azken asteetan bere lekua hartu du... Espazio publikoan batzen gaituzten ekitaldiak galtzen ari diren honetan, elkargune erreferente bat da” azaldu digute azokaren ekimena dararamaten auzotarrek. “Plazatxo bat eta jendearekin egoteko plan bat sortu da. Jendea erostera dator baina auzokide batekin eta bestearekin hitz egiten du”. Eta gehitu dute: “Azoka Txikia, besteak beste, herritarrok eta komunitateak ahalduntzeko ariketa praktikoa bat da”.

Pozik daude auzoak urtetan zituen hainbat beharri erantzuten dielako, eta aldi berean, kontsumoa egonkortu delako: “Hasierako gure beldurra hori zen, lehen asteetako emozioa joatea, baina ez da hala izan eta auzotarrek erosteko ohitura egonkortu dute. Salgaiak dakartzaten ekoizleek saldu egiten dute, kopuru handian gainera. Eguraldi txarra egin duenetan ere, jendea etorri egin da”.

## ARRAKASTAREN GAKOAK

Ordu eta erdian auzotarrek bizi mugitzen ikusi ditugu, asteroko produktuen bila, tarteka batekin eta bestearekin hitz eginaz. Mahaietan salgai hautatuak ageri dira, gutxi eta onak, eta bada zuzenean furgonetatik zerbitzatzen duenik ere. Azkar jarri eta kentzeko egitura du azokak,

ponpoxokeriarik gabe, baina oso eragin-korra. Bistan da auzotarrak ere despistatu gabe zuzenean erostera datozela.

Arrakastaren gakez galdetu diegu antolatzaileei: “Gauza askoren batura da. Produktuaren kalitatea, ekoizlearekin harreman zuzena izatea: badakizu zer jaten ari zaren, nondik datorren... harreman horretan, elikadurari buruzko kontzientzia pizten ari da”. Konfinamenduak bere arrastoa utzi duela ere azaldu dute: “Konfinamenduan asteleheneroko zita zen eta mantendu da, eta garai hartan herritar askok hausnartu zuen kontsumo ereduaz”. Urteetan kontsumo taldeek egin duten elikadurarekiko sentsibilizazio lanak ere bere fruitua eman duela azaldu dute. Badira beren banaketa Egiako 75-100 etxetara iristen diren hiru kontsumo talde oso egonkortuta, “eta badira beste pare bat kontsumo talde gehiago ere”.

Pozik dira azokara datozen herritarrek ez direlako saltsa guztietan topo egiten dutenak bakarrik: “Beste era bateko jendea ere etortzen hasi da, eta hori lorpen handia da”. Orain artean auzoko taldeen bidez zabaldu dute deialdia baina badute asmoa ekimen honen berri auzoan buzoneatzeko, “oraindik asko eta askok ez dutelako bere berri”.

## AUERRERA BEGIRA

Irailaz geroztik tarteka azoka bereziak egiten dituzte: beste ekoizle batzuek parte hartzen dute hauetan, ardoa, sagardoa, gazta saltzen.

Erosketak taldean ere egiten dituzte sarean bidez: adibidez, Valentziatik la-

ranja ekologikoak ekartzen dituzte, Nafarroako lekale ekologikoak... “Gure asmoa harago joatea da, epe luzera kontsumo ereduaren inguruko kontzientzia lantzea. Bertako merkatariarekin ere zerbait egin nahi genuke elkarlanean, tokiko kontsumoa bultzatzeko”. Elikaduratik abiatuta, burujabetzen esparrua zabaltzeko aukera ikusten dute aurrera begira: energia burujabetza (Goienar), teknologiarena (Izarkom)...

Auzoan talde asko dago eta talde horiek azokan leku izatea sustatu nahi dute: adibidez, literatur solasaldiko kideek azken azoka berezian liburu trukea antolatu zuten. “Horrelako ekintzei ere leku eman nahi diegu, ez dugu nahi azoka taldetxo batek soilik antolatzen duen zerbait izatea, baizik, gizarte mugimenduek leku izan dezatela. Horretarako ere erreferente bihurtzen ari da azoka”.

Baina “poliki eta natural” doazela diote irribarrez, “behartu gabe eta erre gabe. Helburu handiena mantentzea da, eta tarteka azoka bereziak egitea”. Pozik daude eguneroko lanean jendea gehitzen ari delako: “Bakoitzak lan jakin baterako parte hartuz, egituratxoa egonkortzen eta indartzen ari da. Eta laguntza eskatu orduko auzoko jendeak erantzuten du, eta horrek aurrera egiteko indarra ematen du. Azokak ilusioa piztu du”.

Udalari eskatzeko zerrenda ere prest dute, ekoizleei baldintza ahalik egokienak emateko azpiegitura indartzeko. Eta azokan kontsumitzaile gazteak eta ekoizle emakumeak sustatzeko proiektua lantzen ari dira.



DANI BLANCO

mugarriak dira. Festak horretarako ere badira: bizirik gaudela eta denbora ez dela alferrik pasatzen sentitzeko". Herriko festen ordez oso gauza xumeak egin diren, jende askok pentsatu du "horretarako ez du merezi", baina Alicostes ez dator bat: "Hala esaten da, baina bai, hala ere, hobe da zerbait egitea". Bizitza komunitarioak eta estimulazio sozialak pertsonen ongizatean eta garapenean duten garrantzia kontuan hartuta, une eta testuinguru batzuetan "zero arriskua" bilatzeko martxan jarri diren neurriek, populazio kalteberenetan eragin ezkorra izan dutela dio Alicostesek: "Adibidez, udan herri askotan ez dira udaleku irekiak egin eta horrek ekarri du sozialki lehendik kolokan zeuden umeak are okerrago geratzea. Baliabide batzuk, hala nola ezgaitasun kognitiboa edo osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonentzako eguneko zentroak, itxi egin dira, horrek dakarrenarekin pertsona hauentzat eta beraien sendikoentzat. Agian beharrezkoa zen neurriak azkar eta salbuespenik gabe hartzea, baina aurretik beharrezkoa izango da arrisku maila eta onura balantzan jartzea, eta baliabide horiei jarraipena eman ahal izateko beharrezko neurriak hartzea. Gainera zero arriskua ez da existitzen".

## OREKA ETA TENTSIOAK

Abenduan pandemiari buruzko mahai-ingurua antolatu zuten Altzon, eta bi mediku, psikologo bat (Alicostes bera) eta baserritar bat izan ziren hizlari. "Mahai-inguru horretan azaldu zen

**"Beharrezko ditugu kultur ekintzak, egun guztiak ez direla berdin sentiarazten digutenak"**

**Lorena Uriarte**

Altzoko zinegotzia

buru osasunaren eta osasun fisikoaren arteko lotura eta tentsioa" gogoratu du Muruak. Ikusi dugunez, Alicostes psikologoak azaldu zien Altzon egiten ari diren herri bizitza oso inportantea dela pertsonaren orekarako. ZIUKo medikuak

"bai, baina itxaron, oraindik ez", nabarmentzen zien. "Eta ikusleen artean ere halako bi polo zeuden", oroitu du Uriartek. Alicostesek gaia plazaratu eta taldean lantzea bera baloratu du: "Beldurra kentzeko partekatzea bezalakorik ez dago, besteen pentsamenduak ezagutzea, besteek zer egiten duten ikustea... horrelako gauzak dira garrantzitsuenak beldurra lantzeko". Pandemia honetatik okerrera, "harreman sozialak etsai gisa ikustea da", berarentzat: "Hori oso mingarria da. Ez dut uste luze mantenduko denik, baina agian bai".

Muruak Altzoko ekimena berretsi du: "Guk gure herrian ditugun aukerak baliatzearen aldeko apustua egin dugu, sinistuta oreka hori zaintzen genuela. Eta emaitzek laguntzen digute esateko ongi egin dugula". Herri askotan kolektiboen jarduna nabarmen moteldu den honetan, Altzon ez da horrela izan: "Emakumeen taldea inoiz baino aktiboago dago. Gazteek ere badute beren indargunea, Kultur Batzordea kidez berritu egin da eta adinez gaztetu... Zorionez herri aktiboa dugu". Horretan ere izango du bere eragina urte osoan ekitaldiak antolatzearen aldeko apustua egin izanak. ●

# elhuyar

aldizkaria

**Ezagutza oparitu!**

**20 €**  
URTEAN

Hiru hilez behin, etxean bertan.  
Egunero, webgunean.

**Zientzia eta teknologian gertatzen den guztia zure eskura!**



<https://aldizkaria.elhuyar.eus>

Harpidetzak: 943 36 30 40



# “Liburua ekintzarako tresna da, beraz, animatu erabiltzera”

Su geldoan egosten hiru urte eman ostean, liburu bat ari da isilpean eta eskuz esku mugitzen Euskal Herrian: *Mundua eraldatuz goatzeko errezeta liburua*. Askotariko ekintza zuzen zapoetsuak egiteko beharrezko osagai guztiak aurkituko ditu irakurleak bertan: errezeta bakoitza pausoz pauso kozinatzen argibideak, plater desobediente gogoangarriak prestatu dituzten ekintzaileekin elkarriketak, edota sukaldaritza eraginkorra eta eraldatzailea egiteko oinarri teorikoak, besteak beste. Hori dena testu, argazki, bideo, marrazki eta abarrez osatutako cocktail koloretsu batean aurkeztuta. Beren benetako izena gordetzea nahiago duten Xabierrek eta Mikelek azaldu dizkigute liburuaren mamia eta zergatia.

 ZIGOR OLABARRIA OLEAGA



**Nola sortu zen liburuaren ideia eta zenbat eskuk hartu duzue parte?**

**Xabier:** Liburuaren bibliografian liburu bat agertzen da lehena: *Street Art. recetario de técnicas y materiales del arte urbano* (Street Art. Arte urbanoaren tekniken eta materialen errezetategia). Hura ikusi nuenean, esan nion neure buruari: hauxe behar dugu baina desobedientziari buruz. Eredu hori hartuta proposamen zirriborro bat egin genuen, zenbait jenderi aurkeztu, eta hor hasi ginen.

**Mikel:** Jende gehienak esan zigun: “Egiten baduzue, oso ondo” [barreak]. Baina talde majoa osatu genuen, eta jende piloak hartu dugu parte: edukien sorkuntzan 20 gutxienez, marrazkiak, irudiak, banaketan orain dozenaka lagun dabil-tza... Oso korala izan da.

**Eta zein da helburua?**

**Xabier:** Uste dugu desobedientzia garrantzitsu ez ezik ezinbesteko erreminta dela benetan gauzak aldatu nahi baditugu. Borroka mol-

deen inguruko eztabaidak askotan eman gabe daude herri mugimenduetan, eta ekarpen bat egin nahi genuen.

**Mikel:** Desobedientziaren esparruan zer gauza eta nola egin diren ere jaso nahi genituen. Nola eskegi kanpai-dorre batetik? Nola gelditu tren bat? Nola egin komunikazio seguruak sarean? Pentsatzen dugu jende asko dagoela gauzak egiteko prest ezagutza partekatuz gero, eta beraz, horretara dator liburua.

**Liburu berezia da estetikoki zein barne antolaketa aldetik.**

**Xabier:** Arreta berezia jarri diogu edukiaz gain irudiari, diseinuari... erakargarri izatea nahi genuen. Kolorean egitea apustu garrantzitsua izan zen, prezioa asko igotzen duelako. Ez da liburu bat hasieratik amaiera irakurtzea eskatzen duena, kontsultarako liburua da. [Liburuaren orriak pasatuz] Agian batek jakin nahi du nola hondatu makineria astuna, besteak Poliziaren gas negar-eragilearen aurrean zer egin, hirugarren batek hormetan irudi

handiak nola itsatsi: zuzenean dagokion kapitulura joatea du.

**Zer jende motak bultzatu duzue proiektua? Arituak, adituak esparru politiko bateko edo bestekoak...**

**Mikel:** Herri mugimenduan ari garen jendea gara, desobedientziaren ildoan eta egungo egoeran ekarpena egin nahi duena. Euskal Herri osoko aktibistak.

**Xabier:** Ideologikoki aniztasun handia dago liburuaren atzean, mugimendu oso ezberdinetan parte hartu duen jendea, eta nork bere esparrutik egin du ekarpena.

**Abenduan hasi zineten liburuaren banatzen, horretan ere modua ez da konbentzionala izaten ari.**

**Xabier:** Banaketa eskuz esku

egiten ari da. Liburuaren anonimoa da, batetik izaeragatik horrela behar zuela uste dugulako, baina baita segurtasunagatik ere.

**Mikel:** Horrek lanketa gehiago eskatzen du eta banaketa prozesua luzatzea dakar, baina ikusi dugu ere banaketak jendea inplikatzeko duela eta pozik gaude. Euskal Herri osora iristen ari da, ahoz aho eta eskuz esku.

**Zenbat ale ateratu dituzue eta nola doa salmenta?**


**Xabier:** 750 ale ateratu ditugu eta agortzeaz daude. Arrakasta ikusita, bigarren edizio bat aterako dugu.

**Argitaratzea bera izan da liburuaren lehen ekintza desobediente, ezta? Lagun batek esan zidan ISBNa ordenadorean sartzean sorpresa galanta hartu zuela...**

**Mikel:** [Barreak] Lizentzia poetiko bat hartu dugu bai, eta liburuan zehar badago bestelako keinurik ezkatuta, ulertu behar dituenak ulertuko ditu.

**Desobedientzia da Errezeta liburuaren zorua, baina desobedientzia ulertzeko modu ugari dago. Zein da zuek proposatzen duzuen?**

**Xabier:** Liburuan bertan diogu: "Ortodoxiak alde batera utzita, liburu honek bere erara definituko du desobedientziaren kontzeptua, eztabaida itxitzat



jotzeko asmorik gabe". Guk ezberdintzen ditugu, batetik, lege eta arauak desobedientzia, eta bestetik, inposatutako ohi-turei desobedientzia. Bigarren horretan ez dugu sakondu badagoelako jada Lurralde Askearen 100 konpromisoen liburu, gaia luze eta zabal jorratzen duena. Lege eta arauen desobedientziaren alorrean lau ekintza mota ezberdintzen ditugu: desobedientzia zibila; erresistentzia, kolaborazio eza, eta ekintza zuzena. Praktikan lauen arteko mugak lanbrotu egiten dira askotan. Liburuaren ekintza zuzenera dago bideratu gehien, baina garrantzitsua iruditzen zitzaigun kokapen teoriko orokor bat ematea. Praktikara bideratutako teoria.

**Izenburuak dio ematen dituzuen errezetak "mundua eraldatzeko" direla, baina baita mundua eraldatzeko "gozatzeko" ere. Zergatik gozatu nahi hori?**

**Xabier:** Desobedientziak ondorioak dakartza: errepresioa, espetxea, isun ekonomikoak, kolpeak. Kontziente izan behar dugu, eta onartu, baina iruditzen zaigu fokua horretan zentratzen dela maizegi.

**Mikel:** Militantzia gozamen iturri denean askoz erakargarriagoa da. Sakrifiziotik ere badu batzuetan, baina guk aldarrikatu nahi dugu mundua eraldatzea plazer hutsa dela. Horrek indarra du. Ekintza bat egiten duzunean sentitzen dena oso indartsua da, ondo ateratu denean etxera eramaten duzun poza, hori handia da.

**Oso gauza ezberdinak egiteko errezetak biltzen ditu liburuak, plantillak egiteko hondeamakinak sabotatu edo trenaren katenariak izorratzera. Zein izan da zuen irizpidea zer sartu zer kanpoan utzi erabakitzeke?**

**Xabier:** Gaur egungo testu-inguru politikoan gure iritziz desobedientziari ahalik eta ekarpen positiboena egin-go dioten errezetak sartzen saiatu gara. Borroka molde gogorragoak faltan bota dituela esan digunik bada; baita jaso ditugunetako batzuk oso gogorrak direla eta hotzikara pixka bat eragin dietela esan digunik: denetik. Idatzi dugu: "Biolentzia iraultzailearen balioa ukatu gabe, alternatiba ez-bortitzak proposatzen dituen borroka moldeak da desobedientzia". Gu hor kokatu gara.

**Mikel:** Hori guztia esanda, kontziente ginen praktikan muga nonbaiten jarri behar genuela, eta erabaki genuen muga izatea pertsonen aurkako bortizkeria.

**Atal teorikoak ere askotarikoak eta mamitsuak dira. Besteak beste ekintza zuzenak antolatzeke modu herrikoi bat proposatzen duzue: kidesan taldeak.**

**Xabier:** Kidesan taldeekin azaldu nahi dugu desobedientzia ekimenak edonork egin ditzakeela, ez dela "aktibista profesionalen" kontua. Ekintza asko aurrera eramatea ahalbidetzen duen antolaketa eredua iruditzen zaigu kidesan taldeena.

**Mikel:** Izen horrekin oso formala den zerbait irudika balezake ere, zer dira kidesan taldeak? Norberarentzat konfiantzazkoak diren jendearekin talde-txoak sortzea, halako ekintzak egitea gustatuko litzaizkiekeen konplizeak bilatzea, nolabait esateko.

**Aldi berean, sentitu dut diozuela: "Ez dezagun edonola egin".**

**Xabier:** Bai, horretara datoz atal teorikoak. Saiatu gara desobedientziarekiko transbertsalak diren hainbat alor jorratzen, aukeratzen dugun ekintza hori egitean kontutan hartzeko. Adibidez, *Komunikazio plan bat nola egin?* kapituluak berdin balio dio, bidoiekin lotu behar dutenei, altuera batetik zintzilikatzeke



asmoa dutenei edo herri harresi bat antolatatu nahi dutenei. Kasu bakoitzean ikusiko du norberak zer den beretzat baliagarria eta zer ez. Berdin *praktika feministak desobedientzia ekimenetan* edo beste zenbaitekin. Arreta deitzen du artxiboan argazkiak bilatzen eta bilatzen pasa dugun honetan, desobedientzia ekimenen %90ean gutxienez, protagonismoa gizonetzkoek daramatela. Hori ere aldatzeko ekarpena izatea nahi dugu liburu hau.

“**Konfrontaziorik gabe ez dira posizio politikoak aldatzen eta ‘statu quo’-ak irabazten du**”

**Sei elkarrizketa egin dituzue: Bilboko Plazeraren prozesioa, Situazionismoa Donostian, Itoizko solidarioak, Arrantza bizardunak, Demoak eta presoen aldeko Giralduak. Zergatik horiek?**

**Mikel:** Euskal Herri osoak eta garai ezberdinetako ekimenak aukeratu ditu-

gu. Beste dimentsio bat ematen du lehen eskuko lekukotasuna jasotzeak. Adibidez, azken orduko zein erabaki hartu behar izan zituzten jakiteko edo halako egoera batean zer gauza gertatzen diren ulertzeko. Horrez gain, oso pozik gaude, liburu honetan kontatzen direlako orain arte esan gabe zeuden zenbait gauza. Adibidez, Iruñean ikurrina zintzilikatu zuten bizardunentzat gogorrena gaua teiltuan bertan pasatzea izan zela.

**Nola ikusten duzue Euskal Herriaren testuinguru politiko desobedientziaren betaurrekoetatik?**

**Mikel:** Euskal Herrian konfrontazio politiko handia bizi izan dugu, bai armatua, baita ez-armatua ere. Hala ere, gure artean partekatzen genuen itzalaldi bat bizitzen ari garela, borroka armatua amaitzeak konfrontazioa geratzea esan nahi izan balu bezala. Gu ez gaude horrekin ados, justu kontrakoa dela pentsatzen dugu. Borroka armatuaren amaiera une ezin hobe zela batean eta bestean desobedientzia ekimenak abiatzeko, soka tenkatzeko, erakusteko biolentoak beraiek direla eta borroka armatuarena aitzakia hutsa zela, esparruz esparru posizioak irabazten jarraitzeko. Baina ez zen egin eta badakigu herrietan planteatzen ziren asko gerarazten aritu zirela batzuek. Iruditzen zaigu konfrontaziorik gabe ez

direla posizio politikoak aldatzen eta *statu quo*-ak irabazten duela. Momentua da praktika politikoan konfrontazioa elikatuiko duten ekintzak gehitzeko.

**Xabier:** Borroka moldeei zegokionean gure inguruan haustura eman zela ikusten dugu. Gauzak egiteko irrika du militantziara batu jende asko, baina maiz ez zekiten zer egin zezaketen eta nola. Horrez gain, herri mugimendu batzuetan eman gabeko eztabaida da borroka moldeena eta liburu honen helburuetako bat da eztabaida hori aktibatzea eta ekarpen-txoa egitea.

**Liburuan diozue, “geroz eta gehiago dira desobedientzia aipatzen duten idatzia”. Borroka armatua amaitzean eta ondorengo urteetan askok aldarrikatzen zuten, egia da. Baina gaur egun ez al dago nahiko baztertuta?**

**Mikel:** Borroka armatua amaitu zenean hutsune bat egon zen. Gero izan zen praktika desobediente esanguratsurik. Nola-bait ikusgarriena izan zena aipatzearen, herri harresien dinamika Euskal Herri osoan zabaldu zen hainbat urtez. Zenbait sektoretatik desobedientziak borrokarako grina eta ilusioa pizten zituela aldarrikatu zen hitzez eta ekintzez. Gaur egun, berriro ere, arrazoi duzu, geldialdian gaude, horregatik egin dugu liburua.



“Ekintza bat ondo atera denean etxera eramaten duzun poza, hori handia da”.



Arrantzale bizardunek 2013an egin zuten beren lehen ekintza, Iruñeko San Ferminetan. Ekintzak errepikak izan zituzten ondoren hainbat herritan.

**Zentzu horretan liburu hau Euskal Herrian egun nagusi den korrontearen aurka egitera al dator?**

**Xabier:** Korrontearen aurka ala alde? Liburua saltzeko laguntza eske hasi garenan topatu dugun erantzuna izugarria da. Bizpahiru hilabetetan atera genituen 750 aleak saldu dira. Ez genbiltzan oso oker idazten hasi ginenean, harrera ikusita. Badago jendartean sakoneko gogo bat ekintza desobedienteak egiteko eta borrokarako grina pizteko. Denborak erakutsiko du ea benetan jendea praktikara eramaten hasten den hemen azal dutako gauzak.

**“Desobedientzia ezinbesteko erreminta da benetan gauzak aldatu nahi baditugu”**

**Hitz egin duzue desobedientziaren lubakitik, baina botereak ere jokutzen du partida honetan. Adibidez, errepresio ekonomikoa asko handitu da. Boterearen zer analisi egiten duzue?**

**Xabier:** Gu garai berrietara egokitzen garen bezala, egokitzen da boterea ere. Ikuspegi ekonomikotik egurra ematea beraientzat oso errentagarria da eta ez die suposatzen herri matxinadarik oraingoz. Hausnarketa interesgarria egiten

dute horri buruz presoen aldeko Giralidilen elkarrizketan. Aipatzen dute beren taldeko kide izateko baldintza zela diru aldetik kaudimengabea edo insolbente izatea.

**Demoek eta Itoizekin solidarioek aipatu izan dute ekonomikoki itota amaitu zutela, orduan errepresioa ekonomikoa horren garatua ez egonik ere arren. Orduetik enbargoak erraztu eta isunak handitu, edo preskripzio epeak luzatu dituzte.**

**Mikel:** Bai, Mozal Legea onartu zuen PPK, gero PSOE eta Podemosek ez dute derogatu, eta bitartean, adibidez, EAJk milaka aldiz erabili du. Min handia egiteko tresna garatu dute eta erabat estrategikoa da desaktibatzea, jende asko uzten baitu borrokatik kanpo.

**Desobedientzia klasikoak “delitua” publikoki egin eta ondorioak onartzea du oinarri. Agian orain publikotasun hori irudien grabazioak eta zabaltzeak eman dezake, geldiarazlea gerta daitekeen errepresioa saihestea bilatuz?**

**Xabier:** Liburuan ekintzen aniztasuna islatzen saiatu gara. Gure ustez zilegi da ekimen bat egin eta bertan geratu eta aldarrikatzea, edo zerbait egin eta aurrerago gauza gehiago egin ahal izateko gauza horiek ezkutuan egitea. Kapitulu oso bat eskaintzen diogu aurpegia estaltzeko modu ezberdinei, eta horiekin transmititzen denari. Bakoitzak aukeratu behar du bere errealitatera hobekien egokitzen den ekimen mota.

**Duela 3 urte hasi zineten eta distopia honen erdian kaleratu da. Nola irakurtzen duzue bizi dugun ataka?**

**Mikel:** Urteak daramatzagu mundua eskuinerantz ari dela sumatzen eta orain azeleratzen ari da turbokapitalismo hau, euskal labela duten agintari neoliberalen laguntza prestuarekin. Hala ere, sentitzen dugu garaiz iritsi dela liburua, munduan halako aldaketa traumatikoak gertatzean, beharretik eta haserretik matxinadak sortzen direlako. Pobrezia, prekarietatea, haserre, nazka handitzen doaz agintariekiko eta oso ongi dator orain liburu hau, eskuinari ezin baitiogu utzi haserre kapitalizatzen.

**Zerbait gehiago esateko?**

**Mikel:** Liburuan 100 ekintza baino gehiagoren bideoak daude QR kodeetan, bibliografia interesgarria... Bizi dugun panoramarekin borroka asko ditugu aurretik eta gustatuko litzazuke liburuak gauzak ikasteko eta egiteko gogoak piztea.

**Xabier:** Eta nola ezin dugun modu publikoan liburua sustatu, eskuratu dutenei dei egiten diegu eskuz esku pasa, fotokopiak atera eta nahi dutena egiteko. Ez da liburutegian luzitzeko liburua, ekintzarako tresna da, beraz, animatu erabiltzera. ●

**EZIAGO POLIGONOA, 21 HERNANI**

info@talleresmitxelena.com  
www.talleresmitxelena.com



EMAKUMEEN MUNDU MARTXA, NAZIOARTEKO V. EKINTZA

# Mugak apurtzeko deia luzatu dute Hendaia eta Irun artekoa zeharkatuz

*Zubi guztien gainetik, mugarik ez! Transnazionalik ez!* lelopean iazko urrian abiatutako Emakumeen Mundu Martxaren Euskal Herriko V. ekintzari bukaera eman diote 400 bat lagunek martxoaren 6 honetan. Manifestazio koloretsu baten bidez Hendaia eta Irun lotuz eta muga administratiboa Santiago zubitik gaindituz, estatuen kudeaketa patriarkal eta arrazista salatzeke unea izan dute. Antiarrazista eta dekoloniala izanen den mugimendu feministaren bidean erreminta gehiago bildurik azken hilabeteetako ekimen parte-hartzailean, honen alde lanean segitzeko determinazioa ere berretsi dute.

 JENOFA BERTHOKOIRIGOIN  DANI BLANCO

Mila koloretako manifestazioa, mila koloretako feminismoa irudikatuz. Martxoaren 6an eman zioten bukaera Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxaren (EMM) V. ekintzari, Hendaia eta Irun arteko Santiago zubian, estatuek inposaturiko muga administratiboa gaindituz. “Muga hau nazio-estatuek inposatutako muga politikoa da, gure lurren kudeaketa patriarkal eta arrazista sendotzen duen egitura militarra”, hasierako hitzartzean oroitarazi bezala.

Iazko urriaren 17an leku beretik abiatutako ekimenari bukaera “duina” eman diotela dio antolaketa arituriko Garazi Goienetxea Diezek. 300 bat lagun batu ziren zubian, Hendaia herriko etxe aitzinetik hamarnaka lagunek abiatutako manifestazioari segida emanez Irunen barna. Bosgarren edizio honetan transnazionalak, mugak eta migrazio-politikak ikusarazi eta salatu nahi izan dituzte, “sistema arrazista, kolonial, kapitalista eta heteropatriarkalaren tresna diren aldetik, pertsona migranteen zein jatorrizko lurraldeetan daudenen bizitzak zapaltzen dituztelako”. Nola ez, hitzordua muga jarriarik, sistema honen errealitate gordinarekin talka egitea ondorioztatu zuen: bukaeran bertako

hiritartasuna geneukanok muga pasatu ahal izatea, Irundik Hendaia pasatu nahi zuten etorkinek aldiz poliziaren debekua zutelarik parean. Hots, bete-betean eguneroko errealitate arrazista, EMMk salatutako: arrazakeria sistemikoa eta honen harira, zurtasunak eta paperekin dakarten pribilegioak.

Funtsean, hitzartzean gogoan izan zituzten antolaketa lanetan aritutako emakume migratuak, eta egitura administratiboak zekarren arriskuagatik mugara bertaratu ezin izan zutenak. Esker bereziak eman zituzten ere antolaketa lanetan aritutako emakume arrazializatu eta migranteen kolektiboek: “Horiek gabe ezinezkoa zitekeen sistema heteropatriarkal, kapitalista, arrazista eta kolonialaren arrakalak sortzeko ekintza hau burutzea”.

Euskal Herriko xoko desberdinetan jositako hamarnaka zapi batu zituzten, ilara aldarrikatzailea osatuz: “*Laino guztien azpitik, zubi guztien gainetik, feministok prest!*”; “*Deseraikiz, zubiak eraikitzen*”; “*Emazteen bizitza aldatu, murrurik ez, mugarik ez*”; “*mugak ekin-tzekin (des)eraikitzen ditugu*”; “*Zubiak eraiki, mugak apurtzeko, gure etxeko langileei kontratu duinak!*”; “*Larrabetzun zubiak sortu, ardura kolektiboa eraikiz*,”

eta beste hamarnaka aldarri ziren ikusgai. Ikuspegi antiarrazista eta dekoloniala bideratzeko asmoz, azken hilabeteetan herriz-herri burututako hausnarketa kolektiboari emandako bukaera kolore-



tsua izan zuten hau. Hausnarketa kolektiboa eta zapien osatze hau lokalki egin izana “garrantzitsutzat” jo dute antolatzailleek, prozesu partehartzaile honekin tokian-tokiko errealitate ezberdinetatik abiatu izan direlako.

### “BIZITZA DUINAK EMAKUME GUZTIENTZAKO”

Borroka feminista, antikapitalista eta antiarrazistari “modu iraunkorrean” eutsiko dion mugimendua eraikitzeko helburua plazaratu zuten EMMko ordezkariak. Bide horretan urrats berri bat eman bazuten ere, ezer ez zen bukatu V. ekintzarekin: “Bidea luzea da, dena dago egiteko”, Goienetxea Diezen hitzetan.

Euskal Herriaren baitan bizi diren pertsona guztiak aitortuko lituzkeen mugimendu baten alde lanean segitzeko determinazioa adierazi zuten muga-tik: “Gure feminismoak bertan bizi garen pertsona guztiontzako bizitza duina bermatzen duen lurraldea eraiki nahi du”. Bide horretan, “egiturazko arrazakeria”, “arrazakeria instituzionala” eta karriketaren “normalizatuz doan gizarte-arrazakeria” aitortzeko eta salatze beharra ezinbestekoa dauka EMMk.

Baina norberak bere “ardura” aitortzeko eta onartzeko urratsa ere azpimarratu zuten Hendaia zein Irundik: “Muga ikusezinak suntsitzea ezinbestekoa da. Ildo horretan egitura arrazista horren

parte gisa gure burua kokatzea proposatzen dugu, emakume migratuek eta arrazializatuek pairatzen duten indarkeriaren sorburuei aurre egiteko gure ardura onartu behar dugu eta ezin diegu sintomei soilik aurre egin”.

Euskaldun feminista zuriok borroka antiarrazistara lotzeko bidea asmatzeko erronka ere daukagula gehitzen du Goienetxea Diezek, –“beti ere kontuan izanik ez garela zuriok zapalkuntza honen subjektu”–. Ariketa horretarako, EMMaren V. edizio horrek elementu interesgarriak utzi dituela dio: “Balio izan du emakume arrazializatu eta migranteek esateko zutena haien ahotik bideratzeko”; “balio izan du mugak zer esan nahi duen definitzeko... migrazioari nondik begiratu nahi diogun argitzeko”, eta beste. Adibidez, edizio honetako termino nagusia izandako ‘zubia’ definitzeko ere balio izan du: “Zubiek ez dute esanahi bera pertsona migratzaile guztientzat; izan ere, inoiz jendea konektatzeko baliagarriak izan ziren zubiak harresi bilakatu dira, eta ez dute pertsonen joan-etorria ahalbidetzen; gune horietan pertsonak diskriminatu, zapaldu, baztertu eta hil ere egiten dituzte”. Zubiak ‘zubi-harresi’ berdefiniturik, zubiaren punta batetik bestera zapi-ilara luzea osatu zuten manifestazio bukaeran, “modu kolektiboan eta indibidualean, zubi-harresiak eraisteko, deseraikitze eta erranahi berri

batez janzteko”. Zarys Falcon artistak borobildu zuen mezua, mugak ardatz harturik osatu sorkuntza gorpuztuz.

COVID-19 pandemiak errimaturiko testuinguruan osatu behar izan zuten V. ekintza, eta nahiz eta horrek bidea “asko zaildu”, orokorrean, antolatzaileek “oso positiboki” baloratu dute egindako bidea. Nazioarte mailan, iaz burutu bazuten EMMren V. edizioa, Euskal Herriko eragileek atzeratzea erabaki zuten: “Iduritzen zitzaigun aukera garrantzitsua zela ardatz antiarrazista mahai gaineratzeko, behar zuen lekua edukitzeko eta hausnarketa kolektibora animatzeko jendea; hori horrela eta COVID-19 testuinguru zela, atzeratzea erabaki genuen. Herriek pozez hartu dute dinamika, Durangon erran izan zen modura, behar zutelako”, Goienetxea Diezek dionez. Oroit gara, Durangon burutu 2019ko Euskal Herriko Jardunaldi Feministetan mugimendu feministan ikuspegi dekoloniala eta antiarrazista txertatzeko behar gorria azpimarratu zutela mugimenduko emakume arrazializatuek eta migranteek–.

Bakartze eta etxeratze logikak bideraturiko COVID-19 garai honetan karrikak aldarrikapenez eta ahizpatasunez bete izana ere eskertu zuten bertaratutakoek –beti ere elkar-zaintza eta osasun-neurriak bermatuz–. Horren lekuko, haste-tik buru nagusituriko irri, *aspaldikoa!*, irrintzi, oihi zein dantza pausoak. ●





## 'DISNEY PLUS EUSKARAZ' EKIMENA

# Haurren paradisu txikiak erdaraz egiten du

 ONINTZA IRURETA AZKUNE

Joan den mendeko 80ko eta 90eko hamarkadatan, haur euskaldunen erreferenteak ziren *Arturo erregea*, *Heidi*, *Dotakon* eta *Dragoi bola*. ETB1ean ikusten zituzten. Azken zortzi urteotan haurren ohiko telebista kontsumoa %40 jaitsi da. Orain marrazki bizidunak ordainpeko plataforma digitaletan ikusten dituzte. Disney Plus da zerbitzu emaila nagusia eta euskaraz ez dauka alerik. Horregatik, guraso talde batek Disney Plusen filmak euskaraz egotea eskatu du, haurrek aisialdia euskaraz gozatzeko aukera izan dezaten.

**D**onostiako euskaltzale eta guraso batzuek joan den azaroan eman zuten pausoa *Disney Plus euskaraz* ekimena bultzatzeko. Euskaraldi betean zeuden eta garai berean jakin zuten marrazki bizidunen multinazional estatubatuarrak eta Kataluniako Gobernuak 2013ko hitzarmena osatu zutela: jada katalanez zeuden filmak katalogoan jarri, plataforman egingo ziren estreinaldiak katalanez egin eta plataformaren funtzionamendua katalanez ere egongo zen.

Disney Plusek marrazki bizidunak euskarara bikoiztuta izatea eskatu dute. Artikulu hau idazterakoan 5.777 sinadura bilduak zituzten. Pozik daude eragileak, Eusko Legebiltzarrean agerraldia egin dute eta hedabideetan oihartzuna izan du ekimenak. Ondoren, Netflix plataformak edukiak euskaraz emititzeko ekimenak ere indarra hartu du eta 6.800 sinadura inguru jasoak ditu. Kezka orokorra da, kontsumo ohiturak aldatu dira, gero eta telebista tradizional gutxiago ikusten dugu eta gero eta gutxiago goaz zine aretoetara. Plataformek hartu dute gain eta horietan euskara hutsaren hurrengoa da.

## ESKAERAK DISNEYRI ETA EUSKO JAURLARITZARI

Donostiako euskaltzale taldearen eskaera bikoitza da. Batetik, The Walt Disney Company multinazionalari eskatu dio euskaldunak diskriminatzeari uzteko. Enpresa horrek, besteak beste, Pixar, Marvel eta Starwars ekoiztetxeen edukiak ere zerbitzatzen ditu. Bestetik, euskararen lurraldeko erakundeei, eta batez ere Eusko Jaurlaritzari, eskatu diete Disneyrekin harremanetan jartzeko, haur euskaldunen eskubideak bermatzeko.

Ekimenaren bultzatzaileek egoera desiratu irudikatu dute eta horra iristeko urratsak ondokoak lirateke: plataformaren funtzionamendua (adibidez nabigazio menua) euskaraz egotea; orain arte euskaratuta dauden filmak katalogoan jasotzea (*UP* eta *Zipi eta Zape*, besterik ez dago); zine aretoetako estreinaldi guztiak euskaraz egitea; eta plataforman estreinatzen dituztenak ere euskaraz bikoiztuta egotea. Azken eskaera horri berebiziko garrantzia eman diote, izan ere halako plataforma digitalek gero eta joera handiagoa dute zine aretoetan estreinatu beharrean plataforman emateko lehen aldiz.

## ETB3 HAURREN %5AK AUKERATZEN DU

80ko eta 90eko hamarkadatan, haurrak internetik, Youtuberik eta plataforma digitalik gabe bizi ziren eta ikus-entzunezkoari lotutako plataforma bakarra telebista pantaila zen. Hego Euskal Herrian lau kate baino ez zeuden: TVE1, TVE2, ETB1 eta ETB2. Geroago azaldu ziren kate pribatuak. Haur euskaldunek ETB1eko marrazki bizidunak ikusten zituzten. 1990eko CIES ikerketa zentroaren datuek diotenez, EAEko haurren %70ak.

Ohiturak nabarmen aldatu dira, ordea. 2020an, umeentzako ETB3 katea haur-gaztetxoek %5ak aukeratu zuen. Beste datu bat: azken zortzi urteotan, Espainiako Estatuan, haurren ohiko telebista kontsumoa %40 jaitsi da.

Plataforma digitalak berriz, gora eta gora ari dira. Netflixek bost urtean %40ko igoera izan du harpidetzatan. Enpresa horrek, Amazonen Prime Videok eta HBOK 150 milioi harpidedunetik gora dituzte mundu zabalean. CIESen 2020ko urriko datuaren arabera, Hego Euskal Herrian euskal hiztunen %47k plataforma digitalen bat erabiltzen du. Disney Plusek sortu eta urtebetean 90 milioi harpidedun lortu ditu. 2020ko martxoan, 200.000 harpidedun gehiago egin zituen Espainiako Estatuan.

Eta zer ikusi daiteke euskaraz gune digital horietan? Ia ezer ere ez. Netflixen *Handia* eta *Errementari* filmak baino ez daude; Prime Videon %0,005; HBOn batere ez; filmin.es plataforman 40 film. Marrazki bizidunen gune nagusiak, Disneyk, 500 pelikula eta 3.000 serie-atal baino gehiago ditu eta bakar bat ere ez dago euskaraz.

Disney Plus euskaraz ekimeneko kideek uste dute erakunde publikoek exijitu behar diela marrazki bizidunen multinazionalari filmak euskaraz ere eskaintzea. Argazkian Alexander Aginagalde ekimeneko kidea bideokonferentzia bidez Eusko Legebiltzarrean agerraldia egiten.

IREKIA.EUS

## HELBURUA LORTZEKO HIRU PROPOSAMEN

Alex Aginagalde ekimeneko kidea da eta otsailean Eusko Legebiltzarrean izan zen haien eskaerak azaltzen. Helburuak lortzeko balio dezaketen hiru bide proposatu zizkien talde parlamentarioei.

Baga, Disney multinazionalari eskaera sozialaren berri eman eta akordio batera iristea. Kataluniako Gobernuak hala eginga du. Hitzarmenari esker, 2013tik zine aretoetan marrazki bizidunak katalanez eskaini dira. 21 film estreinatu dituzte eta denak katalogoan daude gaur egun.

Biga, agintariei legez arautzea eskatu diete. Haurren hizkuntza eskubideak bermatu beharra dagoela diote bultza-

tzaileek eta EAEko ekoiztetxeei exijitzen zaien bezala haurrentzako filmak euskaraz ere estreinatzea, kanpoko enpresei gauza bera eskatzea eraginkorra litzatekeela uste dute.

Higa, Espainiako Estatuan Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko Lege Orokorra tramitazioan dago eta ekimenaren bultzatzaileen ustez momentu aproposa da hizkuntza gutxituei kuotak jartzeko. Europako zuzentarauk dio plataforma digitaletan edukien %30ak Europar ekoiztutakoa izan behar duela. Espainiako lege aurreproiektuak berriz, proposatzen du %15 estatukoak izatea. Eskaera litzateke %15 horretatik erdia euskarazko, katalanezko eta galegozko ekoizpenentzat gordetzea.

## ARAZO ASKOZ SAKONAGOA

Lehentasuna eman diote eskaera zehatzari, baina Donostiako euskaltzale eta guraso taldeak badaki ikus-entzunezkoen euskarazko kontsumoaren gaiak adar asko dituela eta erronka zabalagoari erantzun behar zaiola: euskara zine aretoetan ia ez dago, bikoizketa sektorea egoera kaskarrean dago, ETBren inguruko gogoeta falta da.

Euskarak tokirik ez duen eremu amaigabea begien aurrean zabaldu zaigu. Donostiako euskaltzale taldeak gogotsu jarraituko du eskakizunei oihartzuna ematen, baina argi dute agintari politikoek esku hartu behar dutela, euskal hiztunen hizkuntza eskubideak jokoan baitira. ●

BABESLETZA:



Hondarribia  
euskaraz bizi





# Orduak kontrolatzeko taula, lana ez dadin izan bizitzan denbora gehien hartzen duena

ARGIA ETA OLATUKOOP ELKARLANEAN



**H**iritik At kooperatiba sortu zutenean 35 ordukoa zen langile hauen lan astea. “Urtebetera-edo diru-sarrerak hobetzen joan zitzaizkigun eta aukeratu ahal izan genuen: soldatak igo edo lan-orduak murriztu. Lanaldia murriztearen alde egin genuen, ulertzen dugulako ekonomia sozial eraldatzailerako enpresetan lanak ez duela izan behar bizitzaren zati handiena hartzen duena”. Geroztik 32 orduko lanaldian ari dira.

Hasieratik hasi ziren orduak kontatzeko. Bakoitzak darama bere orduen kontaketa, ez du beste inork kontrolatzen, baina barrura begira ordu horiek erregistratuta uztea garrantzitsutzat dute, lan-taldea antolatzeako informazio asko ematen baitu. Kanpora begira, erreminta horrek aukera ematen die proiektu bakoitzaren errentagarritasuna neurtzeko: “Lan bat egiten badugu x dirugatik eta guk diru horri dagokiona baino askoz ordu gehiago eskaintzen badizkiogu, horrek ekar dezake guk egunean 8-10 ordu lan egin behar izatea. Garrantzitsua da jakitea non dagoen oreka: lana kalitatez egiteko, baina autoesplotatu gabe”.

## KALKULU-ORRI BAT, NORBERAREN NEURRIKOA

Interneten badira lan denborak neurtzeko mila aplikazio. Hiritik At, ordea, excell taula sinple batekin abiatu zen, eta denborarekin bere neurritik zehaztu eta garrantu du: “Guk proiektuak lan egiten dugu, eta taulan idazten dugu zer aurrekontu dugun proiektu bakoitzerako. Orduen aurreikuspen bat egiten dugu eta langileon arteko banaketa, bakoitzak dituen lan-kargen arabera. Enpresaren lanak ere kontuan hartzen dira lanen banaketan: administrazioa, komunikazioa... eta baita ere formakuntza, lan komunitarioa... esperimentatuta dugu egun zer ardura dituen bakoitzak enpresan, eta lanaldiaren zer ehuneko eskaintzen diogun lan mota bakoitzari, eta hurrengo hilabeteetako lanak aurreikusten eta orekatzen goaz”.

Erreminta honek ez du minutuz minutuko hiper-zehaztasuna bilatzen: “Egunean bost minutu baino gutxiago pasatzen ditugu taula hau betetzen. Eta baditugu zaku orokorrak ere, esaterako, emailak erantzuten ordu-erdi pasatu badut, ‘proiektuen kudeaketa’ zaku orokorrean jarriko nuke”.

## DENBORA EZ DA BETI AURREKONTUAREN ARABERAKOA

Kalkulu-orrian agertzen den “lan komunitarioak” laukitxoak, herri mugimenduek eskatu dizkieten eta kobratu gabe egingo dituzten lanak biltzen ditu: “Zehaztuta dugu langile bakoitzak urtean hainbat ordu inbertitu ditzakeela horietan”. Proiektu bakoitzera bideratutako ordu kopurua beti ez da aurrekontuaren araberakoa: “Proiektu bati aitortu ahal diogu bestelako balioa, guretzako aparteko interesa izan dezake eta kasu horretan agian ez dugu errentagarritasun ekonomikoa bilatuko”.

Erreminta honi esker, lanen aurreikuspena eta jarraipena erraz egiten dute. “Lan-taldean oreka sentzazioa mantentzeko oso ona da”. Taula horretatik atera daitekeen datu pila, bilera ezberdinetan aztertzen dute: proiektuen errentagarritasuna urtean behin begiratzen dute, baina langile bakoitza nola dabilen bileretan behin. ●

HIRITIK AT

HIRITIK AT KOOPERATIBA

[hiritik-at.eus](http://hiritik-at.eus)

**Zer egiten du:** Espazioaren eraldaketa, eraldaketa sozialarekin uztartu.

**Langile edo bazkideak:** 7 langile-bazkide, 1 langile.

**Noiz sortua:** 2013an.

**Egoitza:** Irunen eta Bilbon.

**Harremanetarako:** [hiritik-at@hiritik-at.eus](mailto:hiritik-at@hiritik-at.eus)

## BETERRI SARETUZ

# Jostorratz askorekin josi nahi den sarea

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

**B**eterri Saretuz programak bigarren ikasturteari hasiera eman dio otsailaren 11n, Usurbilen. 2019an jarri zen martxan ekonomia sozial eta eraldatzailearen ikuspegitik Beterri-Buruntza eskualdeko hainbat enpresetatik sortutako asmoa. Lurraldean benetako parte-hartzean oinarritutako enpresen ekosistema bat sortzeko programa honek pasa den ikasturtean finkatutako helburuak jarri nahi ditu praktikan 2021ean, dagoeneko harilkatzen ari den sarea egonkortu eta kide berriak erakartzeko asmoarekin batera. ARGIA ere, Lasarte-Orian kokatzen denez, sareko kide da.

2019-2020 ikasturtean hainbat jardunaldi antolatu zituzten esperientziak ezagutu, elkarren berri izan eta zehar lerro batzuk finkatzeko. Hori gutxi ez, eta enpresen epe laburreko eta luzeko beharrak zein diren identifikatu zituzten. 2020ko urrian egin zuten emaitzen aurkezpena. Parte-hartzea bultzatzeko gida eta gakoak dokumentua eta enpresen beharrak aurkeztu ziren bertan. Lehen azterketa horren segida da programa berria.

Sei hilabeteko egutegia aurkeztu dute, sei saiotan banatua. Bi ildo nagusi izango ditu aurtengoak: lehen ikasturtean identifikatutako enpresen beha-

rrak asetzekoa eta sarea sendotzekoa. Behar horiek asetzeko esperientzia eta metodologiak partekatzeko asmoa agertu dute, horretarako eskualdeko zein eskualdetik kanpoko hainbat proiektu saioak ematera gonbidatuz. Sarea sendotzeko saioarekin ekin diote Usurbilen, dagoen ehuna indartu eta partaide berriak zein izan daitezkeen eta nola gerturatu daitezkeen aztertuz. "Ekimen irekia da, eta enpresa, proiektu, eragile eta tokiko erakunde gehiago batu nahi ditugu", azaldu dute partaideek prentsa-oharrean.

Parte-hartzea da zehar lerro nagusia, bere erabilera zabalean. Langileen parte-hartzea enpresako erabaki-guneetan, aspektu ekonomikoan, elkartasun balioen ikuspegi batetik... Askotariko aplikazioa izan dezake. Baina badu berezitasun bat Beterri Saretuz programak, eta da parte-hartzea lurraldearekiko inplikazioari atxikita planteatzea. "Aurten jarraitu nahi dugu, bide beretik, eskualdean eragiten", diote, eta azpimarratzen dute "hala, enpresa eta bestelako proiektuez gain, bereziki gonbidatu nahi ditugu enplegu politiketan dabil-tzan tokiko erakundeak eta gizarte zerbitzuak eskaintzen dituztenak, egitasmo honetan parte hartu eta ekosistemari bultzada eman diezaioten". ●

## ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

**A**rrazoi hauek eman dituzte egun hauetan Argia Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Unibertsitateko gradua gaztelaniaz egiten ari naiz eta nire euskara maila mantendu nahi dut, etxean mintzatzen ez dut eta".

**Ortuellako Aimar**

"Kalitatezko kazetaritzaren eta euskararen alde egiten duelako".

**Urnietako Maialen**





# MINGRANONDOA, ALESAGARRA ETA EUSKALDUN FENIZIOAK



JAKOBA ERREKONDO  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

**M**artxoak negua harrapatu, ostikopetu eta aurrean eraman du. Nire iritziz. Zenbait belagilek dio apirila arte ez dugula negua agurtuko eta, hori gogoan izanik, Urzainkiko Bedaginpiko mendi tonorrera igo eta marti-oilarrari deitzeko grina pizten zait: “Martiko oilarto gorria, izan zakinaz balia”. Oilarraren martxoko kantua gustuko ez ditugun etsaien eta izpirituen aurkakoa omen da, udaberrizaleontzako zinginarri ona.

Neguak berarekin eraman ohi dituen mingranak (*Punica granatum*), uda amaieran hasi eta orain-tsu arte izaten dira. Eta oraingoan ere penetan, haien zale sutsua bainaiz. Haien ura edo muztioa bezalakorik ez dut ezagutzen; aspaldi batean Istanbulen dastatu nuen, eta ezin ahanzi, izan ere ahosabai ero honek nora eramaten nauen... Ahal dudano etxean egiten dut. Niretzat gozoena Errezil sagarrarekin (*Malus domestica* “Errezil”) eta jengibrearekin (*Zingiber officinalis*) egindako muztio nahasketa da: pizgarria, suspertzalea eta biziberritzalea. Ez dago horrelako Euskalkolarik!

Milaka urte daramagu bera lantzen. Erabat asiarra zen hasieran, Iran eta Hi-



malaia artekoa, baina dagoeneko munduko edozein bazterretan topatuko duzu mingranondoa. *Punica* generoaren izena kultura feniziar edo punikotik dator; antzinako merkataria iaioek, mingranondoa eta bere fruituak Feniziatik Erroman sartu zituzten. *Granatum* espeziearen izenak alez betetako fruitua esan nahi du, arabiarrek Al-Andalusen sartzeak eta landatzeak Granada hiri ederrari eman zion izena, Granadako erresumaren irudi bihurtuz. *Granatum* horretatik datorkio beste euskal izen bat: alesagarr, alez betetako sagarra edo fruta, alegia. Mingrana ere *milgranatik* letorke...

Etxeko fruta da Asia aldeko kultura gehienetan; emankortasuna, maitasuna eta haurridetasuna adierazten ditu. Sinbolo oso ezaguna da ospakizunetan, apaizen soinekotan bezala ezkontzetako oparietan. Aldareetan ez dakit baina etxean izugarritzko mirariak egiten ditu. Sona izugarria du sendagai bezala: hesteetako zizareak libratzeko, anemiari buelta emateko, kemena eta bizitasuna sustatzeko, eztula eta sabeleko minak atzeratzeko... Minbiziari aurre egiten ote dion ere esaten dute orain. Bi erabilera bitxi ere baditu: frutaren azalaren ura koloratzaile naturala da, eta azal hori bera erre eta sortutako “ikatza” hortzak zuritzeko gaia.

Niri mingrana-mistela edo punisagardoa gustatzen zait. Egin nahi baduzu hona bidea: hartu kilo eta erdi mingrana ale garbi, eta jarri 750 cl brandy edo uxuala lehorretan kanela (*Cinnamomum verum*) zotz puska batekin. Bizpauru egunez maiz astindu. Ondoren, iragazi zapi sarri batean, eta kendu zukua aleei. Litro bete uretan, nahasi kilo erdi azukre, behar izanez gero berotuz. Dena batu eta botilaratu. Horra punisagardoa. Izen polita ez al da ba? Euskaldunok punikotik, feniziotik ere badugun seinale? ●

## Etxeko landareak

### Hitzaldia antolatzeko

Osasun neurriak zainduta zure herrian Jakoba Errekondoren hitzaldia antolatu nahi baduzu, idatzi: [bizibaratzea@bizibaratzea.eus](mailto:bizibaratzea@bizibaratzea.eus)



L'ATELIER PAYSAN

# AGROEKOLOGIA ETA TEKNOLOGIA BURUJABETZA



**GARAZI ZABALETA**  
@TIRIKITRANN

**U**rtarrilaren bukaeran, Frantziako L'Atelier Paysan kooperatiba gonbidatu zuten Irulegira bertako ardoen sindikatuak eta Biharko Lurraren Elkarteak (BLE). 25 urtetik gora daramatza nekazaritza ekologikoa bultzatzen BLEk, laborariei formakuntza kolektiboak proposatuz eta jarraipen teknikoak eginez. Ildo horretan, duela hamar bat urte hasi ziren L'Atelier Paysan kooperatibarekin elkarlanean. “Baratzezain txikien talde batek sortu zuen kooperatiba: ikusi zuten profil horretako laborarientzat ez zela makina edo mekanizaziorik, baina aldi berean, haietako askok bazituztela baserrietarako egokituak ziren tresna autoeraikiak, besteentzat ere aproposak”, azaldu du BLEko Maite Goienetxek.

## MAKINAK SORTZEN, ELKARLANEAN

“Agroekologiara egokitutako makinak eta eraikinak asmatzen eta fabrikatzen laguntzen diegu laborariei, burujabetza teknikora bidean kolektiboki ekinez”, aurkezten dute haien burua webgunean. Izan ere, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren alorreko mekanizazioa multinazional handiek bultzatzen dute nagusiki, eredu produktibistara begira eta nekazaria ingenieriekiko eta puntako teknologiekiko menpeko bihurtuz. Kooperatibak eredu teknologiko horri kontra egin nahi dio bete-betean: ahalik eta modu sinpleenean sortzen ditu tresna, makina eta eraikinak, eta haien sorkuntzak eta ikerketak gainontzeko laborariekin modu librean elkarbanatzen.

“Tresnak modu sinplean daude eginak, altzairuz eta burdinez; ez dago robotikarik, guztia oso mekanikoa da”, dio Goienetxek. Autoeraikuntza eta kooperazioa da bidea, eta baserritarrak haien autonomia garatzeko ezagutzak konpartitzera animatzen dituzte. “Ekonomikoki



ere balio handia du horrek, baserrietako ohiko makinak oso perfektionatuak baitira, eta konponketek sekulako dirutza eskatzen dute”, gehitu du. Mota guztietako eraikin eta makinen planoak aurki daitezke latelierpaysan.org webgunean, edonorentzat erabilgarri. Agroekologia-ko teknologia txikien liburutegi handia da, laborariak beraiek etengabe elikatzen dutena, forora haien sorkuntzak eta ikerketak igoz.

## IRULEGIKO ARNOGILEEK BADUTE MAKINA BERRIA

“Haziak ereiteko makina bat eraiki nahi zuten Irulegiko mahastizainek, mendiko mahastiei egokitua egonen zena”, dio Goienetxek. L'Atelier Paysan kooperatiba gonbidatu zuten, eta lan-aste baten on-

doren, gidariaren eta formakuntza praktikoa jaso zuten zortzi pertsonen artean amaitua zuten makina. “Haiek planoak eta materiala ekartzen dituzte, eta guk modu kolektiboan, altzairu meta batetik abiatuta, burdina moztzen, soldatzen eta abar ikasten dugu. Azkenean, makina guk egingo da, autonomoki eta modu kolektiboan”. Gerora, makina horrek arazoren bat duenean, erraza izanen zaie laborariei konpontzea, ongi baitakite nola dagoen eginga.

Makineriaren eta orokorki eraikuntzaren alorrak oso gizonezkoena izaten jarraitzen duenez, hori ere kontuan izaten du kooperatibak eta nolabait buelta ematen saiatzen dira. “Erdiak emakumezkoak ginen formakuntza horretan, ekimenok parekideak izatea bilatzen dute”. ●



# Bidasoaren azpietan alderrai

Iragan hurbileko zenbait pasarteren berrikusketa zorrotza egiten du Eneko Aizpuruak *Bidasoan gora* (Elkar, 2020) saiakera literarioan. Dokumentazio lana ibiltariaren begiradarekin josita, Txingudiko paduratik Xorroxingo iturrirainoko ibilbidean ikusi eta ikasitakoak kontatzen ditu, atzeko planoan beti Bidasoa delarik – desberdinen topaleku batzuetan, tragediaren metafora bestetan—. Irungo poxpolo fabrikako emakumeak, Mikel Zabalzaren muntaia poliziala, Eduardo Lopez Morenoren hilketa, Lakoizketako eroa, portugesen trafikoa, eta bidean galdu direnen beste zenbait istorio biziberritu nahi izan ditugu ibilbidearen zati bat berreginez.

 KEPA MATXAIN  DANI BLANCO





**L**iteraturtasuna dario Endarlatsako bidegurutzeari, Eneko Aizpuruaren (Lazkao, 1976) *Bidasoan gora* saiakeran kontatzen direnak ezagutu behar izan gabe ere. Behobia eta Iruñea lotzen dituen N-121-A errepidea zubi bihurtzen da Lesakaren eta Beraren arteko zati batean, eta zubi nagusiaren azpialdera desbideratzen denak beste zubi bat topatuko du –miliziano errepublikanoek 1936ko gerran Iruna bidean zihoazen erreketeei bidea galarazteko leherrarazi zutenaren toki berean–. Haren albo batera, Bidasoa ibaiaren parez pare, zentral hidroelektriko abandonatu baten ondoko atsedengunean jarri du hitzordua Aizpuruak. “Badirudi hemen azpian beste denbora batean murgiltzen garela. Iragana hemen dago, geldia, eta aurrerabidea hor doa, ziztu bizian, hainbeste heriotza eragin dituen errepide horretan”.

Goizeko erreka-lainorik ez baina oraindik gandutu antzera, haitzarte itxiak kutsu tetrikoa eransten dio tokiari –gure hitzordutik hiru bat astera kiskaliko ditu parajeok sute handi batek–. “Pio Barojak esana dauka mendiarte honetan badela zer bait zitala, beldurgarria”, dio Aizpuruak. Haren hitzetan ez da zenbait aipu-zalaren erudizio merkerik; irakurle finaren datuak josten ditu ibiltari errearen behaketekin, nola liburuan hala elkarrizketan ere. “V.S. Naipauli irakurri nion toki batek ez duela zinezko bereizgarriarik, harik eta idazleren batek liburu batean kokatzen duen arte”. Ramon Saizarbitoriaren *Hamaika Pauso*-ko pasarte batez oroitu da, inguru hartan kokatuta dagoena, “ez alferrik”. Iñaki Abaitua idazleak eta Eduardo Ortiz de Zarate etakideak Endarlatsako bidegurutzean aparkatzen dute autoa, ibaia gurutzatu eta mugaz bestaldera ihes egin nahian. Ahalegin horretan hiltzen dituzte. “Nik uste Saizarbitoriak nahita aukeratu zuela eszena hura hemen girotzea. Gipuzkoaren, Nafarroaren eta Lapurdiren arteko muga izanik, sinbolikoa delako, eta gainera, hemen tragedia usaintzen delako”. Zubiaz bestaldera seinatu du: han datza Santa Kruz apaizak aginduta fusilatutako 42 karabineroen omenezko oroitarria.

Metro batzuk atzerago dago Txapitelako harria, eta, bertan sartuta, mugako lehen mugarra –handik hasten da gaurko ibilbidea–. XIX. mendekoa da Frantziak eta Espainiak mugak zehazteko izenpetutako tratatua. Han zehazten da: Txapitelako harritik itsasaldera Bidasoa

ibaiak markatzen du muga naturala, eta Txapitelako harritik barrualdera mugarririk. “Bidasoa elkargune izan da beti, alde batekoek zein bestekoek merkataritzaerako erabili duten baliabide naturala. Hitzarmen horrek elkargunea bereizteko erabiltzen du, aurrena muga ‘natural’ bihurtuz, eta gero, muga politiko”.

### ZALANTZARAKO ESKUBIDEA

Pauso mantsoz egin dugu aurrera, lurrrera adi, putzuak ahal bezala saihestuz. Oinezkoaren erritmoa eta perspektiba aldarrikatzen ditu Aizpuruak, ideien mundu zurrunaren kontrapuntu modura. “Sarri gure teoriak eraikuntza itxiak izaten dira, eta errealtatearekin talka egiten dute”. Aldiz, ibiltariak bidean ikusten, usaintzen, entzuten dituenek aurreiritziak osatzeko balio diote, aldezturik egositako ideiek nekez jaso ohi duten aniztasuna bilduz. Dokumentazio lan handia egin ondotik, 2019ko ekaineko egun batez abiatu zen Txingudiko paduratik, eta sei egunen buruan amaitu zuen ibilbidea Xorroxingo ur-jauzian. Bideko ustekabekoei beso zabalik, ez zuen plangintzarik egin. Ibiltari zorrotza da liburukoa, inguruarekin ez ezik bere kondizioarekin ere kritiko dena: ekobobo, domingero... “flâneur” gehi genezake, oker erabilitako hitz pedanteen zerrendan aspaldi ez balego. Aizpuruaren saiakera literarioak badu horretatik ere, orde. Oroitu du nola hain gustuko duen W.G. Sebalden ibiliari garrantzia handia ematen zion. “Literaturak xehetasuna jasotzeko borondatea dauka, eta ibiltzea horri lotua dago. Orain, adibidez, Endar-

latsako tunelera iristen ari gara. Bertsio ofizialaren arabera, hona ekarri zuten Mikel Zabalza 1985ean. Hemendik oinez pasatzen zarenean, burua bueltaka hasten zaizu; errepide nagusitik ziztuan pasatzean, ez zara ohartu ere egiten hemen tunel hau dagoenik”.

Garai batean Bidasoako trenaren tunela izandakoa parez pare duela, argi dio Aizpuruak: “Bertsio ofiziala gezurra da. Mikel Zabalza Intxaurren torturatu zuten, poltsa egin zioten eta eskuetatik joan zitzairen. Hura hil ondoren, zozketa egin behar izan zuten erabakitzeke zein guardia zibili egokituko zitzaion epaitegien aurrean fardela bere gain hartzeko ardura. Behin gorpua hona ekarrita, muntaia prestatzen hasi ziren: tunel honen inguruan zegoen zulo bat ikuskatzera ekarri zutela, eta, halako batean, tunelaren erdialdeko irekigunetik ibaira jauzi eginda ihes egin zela. Eskuburdiak jarrita zituen. Nola arraio egin behar zien ihes? Ez dauka ez hanka ez buru. Harrigarriena da oraindik Espainiak ez duela gertatutakoa aitortu. Bertsio ofizialak dio Bidasoa ibaian itota hil zela. Senitartekoak etsita daude, kasua irekitzen saiatu ziren orain gutxi, eta atzera bota zieten oster. Behin eta berriz hormaren kontra jotzea bezala da”. Aizpuruak oraindik ez daki, baina aste gutxiren barruan zabalduko da bi guardia zibilen arteko elkarrizketa biltzen duen audio bat, bere tesia frogatzen duena.

Zabalzaren gorpua agertu eta handik hamar urtera, Endarlatsako tuneletik metro gutxitara dagoen Guardia Zibilen kuartel abandonatuan hil zuten





Eduardo Lopez Moreno Espainiako polizia. Bidasoan arrantzatzen ari zela, une batez kuarter zaharrera sartzea bururatu zitzaion. Han, zerbait arraroa sumatuta, objektu bat arakatzen hasi zen. Eskuetan egin zion eztanda. Hiru hilabete lehenago ETak jarritako lehergailu bat zen. Leher-tu ez zela ohartaraziz abisua emana zeukaten, baina artezilariek ez zuten deus topatu, eta horretan gelditu zen kontua. Aizpuruak oroitzen du nola eztandaren egun berean izan zen Jose Maria Aznarren aurkako atentatua ere. “Fakultatean nintzen ni, eta gogoan dut Tele 5ko albigitegi osoa eskaini ziotela Aznarri. Azken hamar segundoetan aipatu zuten Lopez Morenoren hilketa. Garai hartan ez nion erreparatu ere egin; beste polizia bat hil dute, eta kito”. Liburua prestatzen ari zela semearekin jarri zen harremanetan, eta haren ahotik daki atentatuaz geroztik bizi izan zutena. Beratik Andaluziara joan behar izan zuten bizitzera, amaren herrira. Semea arrotz sentitzen zen han, ordea. “Ni Berakoa nintzen, esaten zidan hark. Adarra jotzen zioten, ze hizkera arraroa zeukan esanez... Hori literarioki oso potentia da”. Hamabost urteren buruan itzuli zen berriro Berara. “Lasai asko segi nezakeen bidean aurrera, beste aldera begiratu, baina aniztasun hori jaso nahi nuen liburuan”.

Zalantza ereitearekin lotzen du idazketa Aizpuruak, eta zalantzarako eskubidea defendatzen du gatazkarekin lotutako auzi askotan ere. “Badirudi askok badakitela nondik gatozen eta nora goazen, zer egin behar zen lehen eta zer orain. Bide egokia seinalatzen da biltza beti”. Aldiz, “bidean galdutakoen bila” aritu da bera. “Makina bat izan ziren alde batekoen eskaera askorekin eta beste aldekoen argudio askorekin ados zeudenak, baina zurrunbiloak irentsi zituen. ‘Nirekin edo nire kontra’ paradigma nagusitzen denean, kontakizun eta bizipen asko bidean gelditzen dira”. Oroitzen du gatazkaren une gori batean

“

Literaturak  
xehetasuna jasotzeko  
borondatea dauka,  
eta ibiltzea horri  
lotua dago”

–ETak Jose Maria Aldaya enpresaria bahituta zeukan garaian– Donostiako Artzain Onaren parean ikusitako irudia: errepidearen alde batean hura askatzearen aldeko kontzentrazioa, eta beste aldean kontra-kontzentrazioa. Bien artean, zebra-bidea, eta handik pasatzen andre zahar bat, janari-orgari tiraka, begirada lurrean itsatsirik. “Zer pentsatuko ote zuen emakume hark gertatzen ari zenaz?”.

### ARKADIA GALDUAREN ARRISKUAK

Atzera Endarlatsako bidegurutzera itzuli, autoan sartu eta Legasarrantz abiatu gara, ibaiaren ibiliari jarraituz. Bidean, ezker-eskuin zabaltzen zaizkigu larre berdeak, muino txikiak, eta nostalgikoentzat tentagarri diren klase guztietako paisaia bukolikoak. Aizpuruari, aldiz, iruditzen zaio ez dagoela ibai bati begira egotea bezalakorik malenkonia sendatzeko. Paisaiaren mitifikazioak erne jartzen du. “Faxista austriarrek ere iragan loriatsu bat asmatu zuten, eta paisaia mitikora jo zuten ideia politiko oso arriskutsuak funtsatzeko. Euskal paisaia zoragarri hori, berde bukoliko hori, gezurra da. Kontuz nostalgiarekin eta iragana mitifikatzearekin; horrek ekartzen ditu egungo amesgaiztoak”. Halakoak irakurketa erabat interesatuak iruditzen zaizkio, iraganak,



arakatu nahi duenarentzat, irudi asko dituelako larre berdeetatik harago. Irun-go Junkaleko Andre Mariaren poxpolo fabrika, adibidez. XIX. mende amaieran juduen diruarekin sortua, 600 emakume bano gehiagok egiten zuen lan, oso baldintza gogorretan: fosforoak hortzak eta hortzoiak jaten zizkien. Bataz beste 23 urtekoak, ezkongabeak eta sindikatuetan elkartuak. Bat eginda zeuden Britainia Handian beren gisako lanetan zebiltzanekin, eta borroka gogorren ondoren lortu zuten baldintzak hobetzea. “Guri, aldiz, emakume baserritar familia-zaintzailearen kontakizuna iritsi zaigu, euskal Arkadia mitikoarena. Nik ez daukat baserriaren kontra ezer –liburuan baserriak eta errotak jasotzen dira–, baina askotan ideia atzerakoia saltzen dizkigute baserriaren izenean”.

Legasa begi bistan, abiada mantsotu eta eskuinera jiratu dugu, Jose Maria Lakoizketa zenaren etxerantz. Aizpuruaren irudiko, Lakoizketak ezin hobeto gorpuzten du bidean galdutako jendea. ‘Lakoizketako eroa’ deitzen zioten herritarrek, uneoro ikusten zutelako, saskia aldean, mendi-belarrak biltzen. Frantziako Botanika Elkarteko kide egin zuten 1877an, bi liburu idatzi zituen, eta 2.500 belar biltzen zituen herbarioa osatu zuen. Etxe inguruan ezezagunak zer suma antze-

man orduko atarira azaldu da emakume bat. Besteren artean Lakoizketa aipagai den erreportaje baterako hormako plakari argazki bat atera nahi diogula esplikaturakoan, ziztuan desagertu da barrura, eta liburuxka batekin itzuli da laster. “Tori, zuretzako”, luzatu dio Aizpuruari. Lakoizketak 1888an idatzitako *Diccionario de los nombres euskaros de las plantas medicinales*-en (Sendabelarren euskarazko izenen hiztegia) ale originala da, sendabelarren izenak biltzen dituen gaztelaniaz, frantsesez, latinez eta euskaraz. Orriak arratoi horzkadaz josirik daude. Bere burua aurkeztu digu: Kontxi Bergara, Etxalarkoa jaio-tzez, Narbartera ezkondua. Zokoratua- ren arrenkura dario Lakoizketari buruz hitz egitean, baina baita inork ahaztuari arre- ta jarri izanaren ilusioa ere. Azaldu dizkigu herbarioarekin igarotako kalbarioak: Lekarozko fraileen kolegioan zeukaten, eta haiek Iruñera joandakoan, Bertizko Jaurerrian uztea proposatu zuten familiakoek. Alkateak ezezkoa eman zien, ordea. Etxeko ukuluan gorde behar izan zuten osorik, egunkari paperetan bilduta, harik eta Eduardo Gil Bera senitarteko eta idazlearen bidez Gasteizko Natur Zientzien Museora eramatea lortu zuten arte. “Europako bigarren herbarioa da, eta pentsa nola ibili garen”.

## PORTUGESEN DRAMA AHANTZIA

Legasako zubia igaro, ezkerretara hartu eta bertan da Katxaine baserria, Blas Andresenaren jaiotetxea. 1962tik 1965era portugesak mugaz bestalde pasatzen ibilitakoa da hura, eta hark kontatu zizkionak biltzen ditu Aizpuruak liburuan. Espainian frankistek agintzen zuten bitartean Portugalgo panorama ez zen hobe- a: Salazarren diktaduraz gain, gerra kolonialak zituzten Angolan eta Mozambiken, eta asko gerrara joatera derrigor- tzen zituzten. Gainera, krisi ekonomiko gogorrean sartuta zegoen herrialdea. Egoera hartan, migrazio uholde handi batek zeharkatu zuen Espainia Frantziara joateko –han lan indar premia zegoenez–. Klandestinoki egiten zuten bidaia, kamionetetan sartuta Iruñeraino, eta handik, bide desberdinak hartuta, mugaldera. Andresenak bide horietako batean jarduten zuen mugalari gisara. Aizpuruari kontatu zionez, maiatzetik azarora bitarte aritzen ziren egunero berrehundik gora portugesez pasatzen. Iruñea ingurutik San Blasko bentarai- no ekartzen zituzten lehendabizi, han- dik Legasara, eta Katxaine paretik ilaran pasa ahala ogitarteko bat ematen zieten, segidan zubia igaro eta mendiz mendi, Baztan aldera joateko. Era horretara sor- tu zen portugesen xenda, deus ez zen to-



Matxain (ezkerrean) eta Aizpura (Eskuinean) Kontxi Bergarekin, Lakoizketak 1888an idatzitako sendabelarren hiztegia eskuetan.





kitik ibiltzearen ibiltzez egindako bidea.

Migratzaileek etxetik irteterako argazki bat bitan zatitzen zutela azaldu du Aizpuruak, erdia bertan uzteko eta beste erdia aldean eramateko. Frantziara iristea lortuz gero, beren erdia postaz bidaltzen zuten etxera, eta familiak orduan ordaintzen zien azken zatia kontrabandistei. Asko izan ziren, ordea, bidean galduak. Andresenaz gain, Pierre Apren-diztegi mugalaria elkarrizketatu zuen libururako Aizpuruak, eta hark kontatu zion nola aurkitu zituen hamar bat portugesen gorpuak bere baserritik gertu. Guztira zenbat hil ote ziren galdetuta, “hori Bidasoa ibaiak besterik ez daki” erantzun zion. Hemerrotekan aztarrika topatu ditu datu gehiago: Diario Vasco-ren berri batek dio 1972an bakarrik 182 portuges hil zirela Bidasoa zeharkatzen. Rosa Arburuak –auziari buruzko ikerketa lan bakarraren egileak– auzitan jartzen du datu hori, puztua egon daitekeela iradokiz. Edonola ere, tragedia haren lekukotza eman dezakeen belaunaldiak ez du asko iraungo, eta oharkabea igaroko ote den kezka du Aizpuruak: “Egun oso kontuan hartzen dugu zer gertatzen den Afrikatik Iruna datozenekin, hedabideek kontatzen digute zer gertatzen den Gibraltarren, eta, aldiz, ez dakigu ezer duela 50 urte eskas hemen gertatutako dramari buruz. Ez genion erreparatu ere egin. Zergatik? Arrotzak zirelako”.

### ITURBURURIK GABEKO IBAIA

Ibilaldia amaitzeko Bertizko Jaurerriera gerturatu gara. Itxita topatu ditugu hoge kilometro karratu pasatxoko parke naturalaren ateak –espezie autoktonoez gain, 120tik gora landare exotiko biltzen ditu–. Pedro Ziga eta Dorotea Fernandez senar-emazteek eman zioten egungo itxura, 1900 eta 1949 urteetan artean. Klase altuko jendea, familiarekin ondarea kudeatu besterik ez zuten egiten. Garai hartarako bikote “oso irekia” zirela kontatzen du Aizpuruak, eta esaterako, sentsibiltate berezia zeukatela animalien eskubideekin, hizkuntzekin edota ingurugiroarekin –inguruko beste zenbait jauntxok ez bezala–. “Toki idiliko bat eraiki nahi izan zuten, baina posible al da hori?”.

Jaurerriaren gainkaldeko Aizkolegi mendian txaleta eraikiarazi zuen Zigak, bere emaztearentzat opari. Behatokia jarri zuen han, izarrei begiratzeko teleskopio eta guzti. Fernandez hil zenean, Ziga bakarrik gelditu zen bere paradisu perfektuan. “Herriarren artean zurrur-



murrua zebilen: teleskopio hura zerura baino Lapurdiko hondartzetara begira jartzen zuela, emakume biluziak ikusteko”. Ametsetako lorategi haren parez pare dago gaurko ibilaldiko azken geltokia. Askok uste dutenaren kontra, Bidasoa ez da Xorroxingo ur jauzian sortzen –Baztan erreka da hura–, ezpada aurrerago, Bertizko Jaurerriaren ondo-ondoan, Zeberriako urak Baztan errekaekin elkartzen diren puntuan. Alta, bada xextrarik kontu horretan ere: “Zenbaitek dio Bidasoa Doneztebe inguruan sortzen dela, Baztanek Gal-

baiaralderen urak hartzen dituenean”. Bata zein beste izan, kontu bat garbi dago: Bidasoak ez dauka iturbururik. Eta *Bidasoan gora*-ko orrialdeetan ere alferrik ibiliko da bat gertakarien arrazoi gordeen peskizan. Aski izango du liburua ausaz irekitzea ziurgabetasunarekin topo egiteko: “Zenbat eta urrats gehiago bidean, orduan eta urrunago dirudi dena delako ibai edo errekaen sorburuak. Hortaz, ez ote litzateke hobe urratsa moteltzea eta begiak sorburuan jarri ordez, aurrean dagoenari lasai erreparatzea?”. ●



# Plastikoa elefanteak babesteko




NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**C**hicago (AEB), 1900. Urte hartako eroldaren arabera, hiriak 1.698.575 biztanle zituen; eta 830 billar-areto (gaur egun ez dira dozenara iristen). Billarraren sukarrak, Chicagon ez ezik, Mendebalde guztian zabaldu zen XIX. mendean. Jokoak Erdi Aroan du jatorria, baina aurreko mendeetan eliteen jarduna izan zen nagusiki. Han eta hemen billar-aretoak ireki ahala, jokoa herritar guztiei zabaldu zitzairen, eta horrek kalte izugarria eragin zien elefantei.

Billarrean aritzeko, bolak ondo ibil daitezen, dentsitate jakin eta uniforme materialak egin behar dira, eta elefanteen hortzetako bolia egokia da horretarako. Hortz batetik 3 edo 4 bola atera zitezkeela eta billarrean 16 bola erabiltzen direla kontuan hartuta, 2 edo 3 elefante hil behar zituzten billar-mahai bakarri hornitzeko. Billarraren loraldiak elefanteen gainbehera ekarri zuen. Kontzientzia ekologikorik gabe ere, ekonomikoki hondamendia zekarren horrek billarraren negozioan ari zirenetzat. Baina irtenbidea asmatua zegoen orduko, oraindik erabilera garbirik ez zeukan arren: plastikoa. Material askoz merkeagoa eta moldagarriagoa zen, eta, epe laburrean, elefanteentzat behintzat, ekologikoagoa ere bai.

1869an Phella & Collender billarreko materiala ekoizten zuen enpresak deialdi bat egin eta sari ekonomikoa eskaini



TÜBINGENeko UNIBERTSITATEKO IKASLEAK BILLARREAN, XIX. MENDEAN. PLASTIKOA BAINO LEHEN, BOLIZKO BOLEKIN JOKATZEN ZUTEN ETA ELEFANTEEN POPULAZIOAN ERAGIN IZUGARRIA IZAN ZUEN HORREK.

zuen marfila ordezkatzeko zuen material baten bila. John Wesley Hyatt (1837-1920) asmatzaile gazteak erantzun zion deiari. Alexander Parkes (1813-1890) ingelesak urte batzuk lehenago garatutako nitrozelulosa moldagarria hartu zuen oinarri zeluloidea lortzeko. Enpresa bolagileak urte horretan bertan pa-

tentatu zituen plastikozko lehen bolak eta, hurrengo urtean, 1870ean Hyattek berak zeluloidea, lehen plastiko industrialaren patentatutako zuen.

Hala, jaioberritan, plastikoak elefante batzuk salbatu zituen, nahiz eta, hazi ahala, elefanteak eta gainerako izaki bizidun guztiak arriskuan jarri. ●



## Antzinako Egiptoko ogia dastatzen

Sorbonako Unibertsitateko Adeline Bats ikerlariak arkeologia esperimentaleko proiektu bat gauzatu berri du: ogia antzinako egiptoarrek bezala egitea lortu du, tresna, prozesu eta lehengai berberak erabiliz. Arrasto arkeologikoei eta margolanei esker jakin du, esaterako, masa molde koniko luzetan sartzen zutela eta


ogia labe edo ontzi irekietan egosten zutela. Labe eta molde zaharretan aurkitutako materia organikoa aztertuta, aldiz, Emmer izeneko gari barietatea erabiltzen zutela ondorioztatu du, gaur egun oso gutxi lantzen dena. Emaizta: ongi egositako opil luzexka, zaporetsua, gluten gutxikoa eta digeritzen erraz dena. ●





## LIBURUA

# Anormaltasuna



CHRISBOLAND.COM

## JENDE NORMALA

EGILEA: SALLY ROONEY

ITZULTZAILEA:

IRENE ALDASORO

ALBERDANIA, 2020

**AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI**

**3**00 orrialde pasatxoko liburua hartu eta alfergura eman dit, zin dagit. Denboraz estu nabil azkenaldian eta gustuko izango dudak ez dakidan liburu luze bat hartzeak nagia eman dit. Hala ere, azal erakargarria dauka, kolore deigarriak ditu eta badirudi liburua deika ari zaidala.

Liburua irakurtzen hasi eta azkar harrapatu naute aurreiritziek: gazteagoentzat izango da agian? Institutu garaiko liburuak irakurriko ote dut bada? Nik istorio hau irakurria dut jada... Horrelako pentsamenduek hartu dute nire burmuina eta nago, zuotako batzuei ere gerta dakizukeela. Hala ere, bi eserialdi nahikoa izan ditut liburuak irakurtzeko, jateko.

2011ko urtarriletik 2015eko otsaile-rainoko tartea kontaktzen digu liburuak. Bi daten artean denbora-salto handiak

nabarituko ditugu eta denboraren joanarekin batera protagonisten bizimodu aldaketak ikusten joango gara. Marianne eta Conell dira orriok beteko dituzten pertsonaiak. Hazten ikusiko ditugu. Nola hazi ginen gogoratuko dugu eta beraiekin haziko gara. Irakurle gisa gauza berezi bat gertatu zait: azkenengo orrialdeetara iristean ahaztu egin zait liburu hasieran institutu garaian zeudela. Hau da, liburuak, pertsonaiek, eraman egin naute. Orainera eraman naute. Irakurle gisa gertatu zaidanak eman dio kritikariari pista: denboraren joana adierazteko kontaktzen dizkigun pasarteak proposak dira.

Marianne, Conell eta beste guztiak oso jende normala dira. Eguneroko gauzak egiten dituzte: esnatu, dutxatu, kafea berotu, larrutan egin, eskolara edo uni-bertsitatara joan, edan, lagunekin egon,

haserretu... Baina liburuak aurrera egin ahala bakoitzaren anormaltasunak ikusiko ditugu: zalantzak, komunikatzeko zailtasunak, erabakiak hartzeko ausardia falta, beldurrak eta norbere lotsak. Anormaltasun horrek egiten ditu pertsonaiak erreal eta haragizko. Barne mundu zabal eta sakona dutela garbi dago.

Normaltasunez bizi den jende anormalaren kontakizuna da. Hari horri tiraka kontaktzen zaizkigu hainbat eta hainbat azpigai, tramaren garapenean garrantzirik izan ez arren karga ematen diotenak. Bortitza, gogorra, sakona da, baina arintasunez, maitasunez eta goxotasunez idatzia; helduak eta normalak izan nahi duten pertsonaien ahotik. Denok bezala, haurrak eta anormalak direnen eskutik.

Euskarara bikain ekarria Irene Aldasorekin luman. ●



## MUSIKA

# Zergatik den Chill Mafia azken aldiko lanik interesgarrienetako bat

**XALBA RAMIREZ**

Chill Mafiakoek jokoa pasa dute eta ez duzue ezer ulertu" gisako sententziak ibili dira Twitterren *Zure Kebapa* eta *Gazte Arruntaren Kopla* kantak kaleratu ostean. Ezer ulertu aurretik etorri da hika-mika eta zalaparta, EiTbN playback kontzertua eta guzti, Eskorbutoen antzera.

*Ezorregatik X berpizkundea* da Chill Mafia Records-en laugarren mixtapea. Lehenago kaleratu zituzten *Tabako*, *Pepa Stepa* eta *Young, Gifted & Basque* (Nina Simone oroitzuz). Aurrekoak trapetik gertu dauden arren, azken lan honek ez du ezer trapetik (Aitor Bizkarrak planteatutako metamusika ez bada). Harrigarria hedabide guztiek hala deitzea egin duten lanari. Ulertzen hasi naiz "ez duzue ezer ulertu" leloa.

Formalki da garrantzitsua *Ezorregatik* lana. Kanten egitura erdi arbitrarioak, estiloen hibridazioa, sampleak eta etxean kozinatutako efektu sorta. Apurtzailea da, ez duelako erreferentzia estetiko zuzenik ez Euskal Herrian ezta inguru hurbilean ere. Eta hori gutxi baltitz, apurtzailea da euskalduntasun ez

hegemonikotik egin delako, langile auzoetako errealtatearen ispilu.

Nork kantatzen du gazte baten ikuspuntuaz eta eguneroko urgentziez? Erromantizatuta ditugu erabat 80ko hamarkadako sexua, drogak eta rock-and-rolla, baina asalatu egiten gara sexu oralaz, MDMAz, kale borrokaz eta instagrameko ligoteoaz entzuten badugu (euskaraz behintzat). Nihilista deitzen diegu gazteoi, eta bitartean belaunaldi zaharragokoak *cross fit*, yoga eta mendi lasterketak egiten eta "egonkortasuna" bilatzen ari gara. Baina, tamalez, denok *No Future* aroan gaude, eta gazte langilearen ahotan ez daude aurreko belaunaldiaren interes eta problematikak.

Kontua ez da politikoki zuzena den ala ez, baizik eta orain arte beto izugarriak jarri dizkiogula gure buruei (eta auzokoei), moral kristauaren itzalean beti. Banksyren murala oroitzuz, arteak eroso daudenak asalatu beharko lituzke eta asalatuak kontsolatu. Hor dago Arrotxapeako gazte hauen ekarpena.

Erabilitako erreferentzia aberatsen bilduma da aipatzeko hirugarren pun-



## EZORREGATIK X BERPIZKUNDEA CHILL MAFIA

CHILL MAFIA RECORDS

tua. Sortu berri den *Klak.eus* hedabidean eginiko elkarrizketan, taldekideek zalantza egin dute Gabriel Aresti edo Jon Mirande, bietatik zein nahiago duten. Zalantza egin dute. Barkatuko didazue, baina zein euskal artista da gai bi euskal poeta zutarri horien artean zalantza egiteko? Zein, gainera, euskara baldarrez, homologatu gabeko euskalduntasun periferikotik? Hori gutxi ez eta Ez dok Amairukoek egin bezala, Ipar Euskal Herritik hartzen dituzte erreferentziak gazteok: Zuberoako kanta, Erramun Martikorena eta Maddi Oihenart ari dira sampleatzen gutxienez 2016tik hona.

J Martina taldeko Kattalineek Giorgio Agamben filosofoaren *Zer da garaikidea* testua pasa zigun, "norbere mendeari nork kantatzen dion" galderaren inguruan gogoeta eginez: "Garaikidea izateak esan nahi du, inoiz egon ez garen orainaldi horretara itzultzea". Gazteak arrotzak dira beti euren herrian. Euren den garaia pentsatu eta moldatu behar dute. Eta zorionekoak gu, belaunaldi berrien airea arnastu dezakegulako. "Geroa begiratuz ilun baitago dena". ●







# Arratsalde bat antzerkian

AMETS ARANGUREN ARRIETA  GAIARRE ANTZOKIA

**Z**inemarekin bezala pasatzen zait antzerkiarekin. Ez naiz askotan joaten, baina joaten naizenetan gogoratzen dut gozatzen dudala eta gehiagotan joanen banintz, are gehiago gustatuko litzaidakeela. Ama Kuraia zuten antzeztekoa Iruñeko Gaiarre antzokian larunbat iluntzez eta azken orduko plan aldaketaren ondorioz erosi genituen geratzen ziren azken bi sarrerak.

Aretarekin (nire giza entziklopedia kulturala) nindoan antzokira eta berak azaldu zizkidan antzezlanaren inguruko pare bat kontu antzokira sartu aitzin: zer nolako kritika onak jaso dituen orain arte eta zein izen handiko aktore arituko diren, besteak beste. Motibatua nindoan.

Hasi bezain pronto harritu ninduen produkzioak. Detailez beteriko eszenografia landuak eta aktoreen jantzi zaindu bezain bereziek batez ere. Ekin zioten antzezlanari. Ez naiz bereziki ona

istorioak jarraitzen, erraz despistatzen naiz. Kostatzen zait esplizituki esaten ez dituztenak ulertzea eta badakit nire arazoa dela, ohitura falta edo. Kontua da minutuak pasa ahala gero eta galduago nengoela, ezin hariari heldu. Lagunaren belarrira hurbildu eta "Areta, agobiatzen ari naiz, ez naiz ezer ulertzen ari" xuxurlatu nion. Eta ezin barreri eutsi. Aretarendako ere zaila ari zen izaten istorioa segitzea eta horrek lasaitu ninduen hein batean. Aitortu behar dut ez nuela istorioa ezagutzen batere, ez nekien zeri buruzkoa zen, ez norena ezta noizkoa ere. Eta galdera bat etorri zitzaidan orduan burura. Uler-tarazi behar al dio antzerkiak kontatu nahi duena deus ez dakienari? Ala publikoak jakintza minimoa izanzen duela suposatuz eraikitzen da pieza?

Ez genuen etsi eta adiago egoten saiatu ginen, detaile guztiei erreparatu. Bat-batean konturatu nintzen sekula pasa ez zitzaidan zerbaite ari zi-

## AMA KURAIA

**NOIZ:** otsailak 20.

**NON:** Iruñeko Gaiarre antzokian.


tzaidala pasatzen: ez nintzen gai obra geografikoki eta denboran kokatzeko. Euskarak ere ez zidan pistarik ematen. Zaila behar du gero eszenografia atenez-porala lortzeak.

Ia eszena bakoitzaren aurretik mezuak ageri ziren, pasako zena aurretatzen zizkiguten paragrafo txikiak. Eta, tarteka, kantak ere sartzen zituzten, obrarako sorturikoak, protagonistek kantatuak. Barneko arropetan *Forever young* kantatuz eman zioten bukaera bi ordu pasatxo irauten duen antzezlanari, haien atzeko paretan mezuak eta irudiak proiektatzen zituzten bitartean. Gerretan zenbat jende hiltzen den zioten mezuek, garai batean ehuneko zenbat ziren militarrek eta zenbat herritarrek eta nola dagoen kontua gaur egun, besteren artean.

Horrek lagundu zidan antzezlanaren parte handi bat ulertzen, baina, aldi berean, are gehiago deskolokatu ninduen. Gehiagotan joan behar dut antzerkira. ●



## Gurutzegrama



### EZKER-ESKUIN:

**1.** Tripa. / Salto, jaiki. **2.** Uso ar. / **Argazkian.** **3.** Gaztaroaren eta zahartzaroaren arteko denbora. **4.** Tamalez, zoritxarrez. **5.** Etorrizun. / Otoitz egiteko prestatzen den toki. **6.** Itxura. / Ikusia izatea merezi duena. **7.** Oiloaren ordenako hegaztia, oiloa baino apur bat handiagoa. / Karea egiteko gai. **8.** Landare bati adarrak ebaki. / Kanonen araberrako.

### GOITIK BEHERA:

**1.** Alabaren senar. / Kontsumorako Prezioen Indizea. **2.** Erabat bete. / Gailur, tontor. **3.** Elkarte, bilkura. **4.** Erdarara itzuli. **5.** Sasoiara heldu. / Artsenikoaren sinboloa. **6.** Katuaren miaua. / Zezen zikiratu. **7.** Zerbait lortzeko egiten den ahalegina. **8.** Gogoratu. **9.** Herri hizkeran, eta. / Hozkada, haginkada. **10.** Aupa, iepa! / Igo. **11.** Nafarroa Behereko udalerria. **12.** Garraiobide mota. **13.** Idisko (Iparraldean). **14.** Mintzak. **15.** Antzetsu, gaitu.

## Sudokua

ERRAZA



|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6 | 7 |   | 5 |   |   |   |   |   |
|   | 9 | 5 |   | 1 |   |   |   | 3 |
| 3 |   | 4 |   |   | 6 |   |   | 9 |
|   | 4 |   | 6 |   |   | 1 | 9 |   |
|   | 5 |   | 9 |   | 8 |   | 2 |   |
|   | 8 | 2 |   |   | 3 |   | 6 |   |
| 8 |   |   | 2 |   |   | 4 |   | 6 |
| 5 |   |   |   | 6 |   | 8 | 1 |   |
|   |   |   |   | 5 |   |   | 3 | 2 |

ZAILA

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   |   | 7 |   |   | 1 | 2 |   |   |
| 3 |   |   |   | 7 |   |   | 5 |   |
| 4 |   |   | 6 | 8 |   |   |   |   |
| 2 | 3 |   | 7 |   |   |   | 6 |   |
| 9 |   | 4 |   |   |   | 3 |   | 1 |
|   | 1 |   |   |   | 9 |   | 2 | 5 |
|   |   |   |   | 9 | 7 |   |   | 2 |
|   | 4 |   |   | 5 |   |   |   | 3 |
|   |   | 6 | 1 |   |   | 5 |   |   |

## Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



## Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERA DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

Azkoitiako abeslaria  
Atarte, atalase  
Kantore  
Hamar dezilitro  
Erabat, zeharo  
Eder, sotil  
Zintzo, jator  
Harizko aztarna  
Kalte  
Janariak prestatu  
Jateko beharra  
Itsas ur  
Kodainak

ANARI

SEGA

### EBAZPENAK

GERO BERA GAILENDU, NIK PIZTIA GIZENDU.

### ATSOZITZA

SEGA  
GESAL  
GOSEA  
EGOSI  
LESIO  
FOSIL  
SOTIL  
POLIT  
TXOIL  
LITRO  
ATRIL  
ATARI  
ANARI

### ANAGRAMAK

ERRAZA  
ZARO, 12. TREN, 13. ERGI, 14. GIAK, 15. IAILO.  
BOROKA, 8. OROITU, 9. TA, KOSKA, 10. EUR, IGAN, 11. BALDERNA, 4. ERDARATU, 5. UMO, AS, 6. MAU, IDI, 7. HELDUARO, 4. DAMURIK, 5. GERO, OTOTZTEGI, 6. KANONIKO.  
GOITIK BEHERA: 1. SUHI, KPI, 2. ASE, GAIN, 3. KAR, IKUSGARRIA, 7. PINTADA, KAREGAI, 8. INAUSI, 9. HELDUARO, 4. DAMURIK, 5. GERO, OTOTZTEGI, 6. KANONIKO.



# Iñaki Libano

IRAGANA ESKUETAN



## PIRITA ETA SILEXA: JO TA SU

“Sua egiteko modurik zaharrena kolpatzea da. Burdin minerala duen harri batez (pirita hau, esate baterako) silexa joz gero, txinparta bat sortzen da, modu honetan [azalpenak ematen dizkigun bitartean, erakustaldi praktikoa egiten ari da Libano]. Historiaurrean, lanabesak egiteko silexa kolpatzen ari zirela jabetuko ziren horretaz, eta orduan hasiko ziren sua kontrolatzen. Begira zer txinparta txikia den, eta horrekin abiarazi behar da sua. Zoriarren arabera ematen du, baina ez da; nik, orain, hau egiten jarraituko banu, bost minutuan piztuko nukeen, eta haiek ere berdintsu egiten zuten. Arinago ezin da”.

## “Sua da, seguruenik, gu gaur hemen egotearen arrazoia”

Harria harriaren kontra. Urtero, Barrikako jaietan, San Joan bezperako sua pizten du Iñaki Libano algortarrak, orain 100.000 urte inguruan bizi ziren neanderthalek egiten ei zuten modu berebean. Arkeologo amateurra da Libano, baina eskarmentu handikoa, garai guztietako aztarnategi ugaritan jardun baitu azken 40 urteotan. Bidean, momenturen batean, arkeologia esperimentalarekin egin zuen topo. Teoria ulertzeko, praktika ikasi.

 **UNAI BREA**  **HODEI TORRES**

### Arkeologia esperimentalak. Zer da hori?

Gustatzen zait eskuarekin gauzak egitea, eta aztarnategiei buruzko dibulgazioa egiteko garrantzitsua da jakitea historiaurrean nola egiten zituzten lanabesak, Behe Paleolitotik Neolitara. Hainbat ikastaro egin nituen, eta horrela heldu nion Bizkaian oso jende gutxi jorratzen duen alor bati. Izan ere, gaur egun, herrialde osoan bik baino ez dugu egiten presio bidezko harri-lanketa (Kobre Aroan bezala), eta beste bizpahiruk kolpatze bidezkoa (Paleolitoean bezala). Erakustaldiak egin ohi ditut museoetan eta ikastetxeetan, eta ikastaroak eman dizkiet historia ikasleei.

### Trebetasun berezirik behar da?

Esku trebeak behar dira, baina edonork ikas dezake hori. Hala ere, beste gauza bat ere behar da: material egokia. Silexa. Bestela, jai. Eta inguru honetan asko dugu, Barrikako Kurtzio mendian, hain zuzen. Kurtziokoa zen Kantauriko itsa-

sertz osoko harrobi nagusia historiaurrean. Bertakoa da silex onea, eta leku askotan agertu izan da: Errioxan, Asturiasen, Frantzia... Silex guztiak dira desberdinak, eta bakoitzak bere marka du. Kolorea, granulometria, fosilak... Horregatik dakigu nongoak diren.

### Zergatik inbertitzen dugu hainbeste diru eta denbora iragan hain urruna ezagutzeko?

Tira, dirua ez hainbeste, kar kar. Orduak bai, asko eta asko. Hara, kultura da. Jakingura. Orain gauden leku honetan neanderthalak (gure lehengusuak) ibili zirela pentsatzea...

### Lehengusuak. Oraindik dago eztabaida neanderthalen eta sapiensaren arteko hibridazioaz?

Batere ez. Haien geneak ditugu, hori argi erakusten dute ikerketek (hau dio irakurri egin dudalako, ez naiz genetika). Sapiensak Europara heldu zirenean, gurutzaketa egon zen. Ez asko, ez zen sekulako orgia izan, baina egon zen. Eta gero Europa



Bere etxean hartu gaitu  
Libanok, Barrikan. Argazkiko  
piezak berak egindakoak dira,  
historiaurreko teknikak erabiliz.

osoan barreiatu ziren gene horiek. Guri orain proba bat egingo baligute, gene neanderthalak aurkituko lizkigukete.

### Orduan, neanderthalak desagertu ala diluitu egin ziren?

Desagertu. Seguruenik sapiensaren presio demografikoagatik, ehizatzeo harrapakin faltagatik... Batzuek diote hotzagatik izan zela, baina neanderthalek 200.000 urte zeramatzen hemen, hotza, beroa eta denetik jasaten. Kontua da sapiensek teknika hobea zutela ehizatzeo, gai ziren 10-15 metrora zegoen animalia hiltzeko. Neanderthalek, berriz, piztiaren ondo-ondoraino hurbildu behar zuten, eta lantza-kolpeka akabatzen zuten harrapakina, 8-10en artean, lehoiek bezala. Horrek hezurak haustea zekarkien, eta zauri larriak, eta tarteka batzuk hiltzea. Emakumeek eta gizonek elkarrekin egiten zuten ehiza; ez da egia, esan izan den bezala, emakumeak bazterrean geratzen zirenik, haien aztarnek gizonezkoen adina haustura dute eta.

Bestalde, komunikazioa bazuten, baina ez ziren gai hitzak bata bestearen ondotik josteko, sapiensek egiten zuten

bezala. Eta hitz egiteko gaitasuna ere oso garrantzitsua da ehiza egiterako orduan.

### Paleolitoko eran sua egiten ere badakizu...

Bai, Bizkaia osoan bik dakigu hala egiten.

### Gurea da suaren beldur ez den animalia espezie bakarra?

Oro har bai, baina ohitzen den animalia bakar bat ere ez da suaren beldur; etxe barruan gurekin bizi direnak, adibidez. Dena dela, gu ere izutzen gaitu suak, baina kontrolatu egiten dugu. Australopitekoak izan ziren erabiltzen lehenak (eta haren beldur ziren), baina ez zuten kontrolatzen, ez zekiten sortzen. Badakigu orain dela 1,4 milioi urte erabiltzen zutela, aztarnategietan ikatz-arrastoak agertzen direlako. Baina milaka urteko aldiak daude arrastorik gabe, eta horrek adierazten du ez zekitela pizten. Bazekiten ona zela, eta suertatzen zitzaientean naturatik hartzen zuten.

Orain 400.000 urte inguru, berriz, *homo heidelbergensis* espezieak, neanderthalen aitzindariak, sua egiten ikasi

zuen. Horrek aukera eman zuen berotzeko, janaria erretzeko (elikagai gehiago hartzen dira horrela, digestioa errazten baita), eta gutxiago aipatzen den baina agian garrantzitsuagoa den zerbaiteko: denbora luzatzea. Gauaren ilunean ezer ikusterik ez badago, denak lotara. Baina suaren alboan egonda, nahi beste denbora duzu ezagutza transmititzeko, txikienei lanabesak egiten irakasteko...

### Suak humanoago egin gintuen, gaur hitz horri ematen diogun adieran?

Bai. Eta sua da, seguruenik, gaur hemen egotearen arrazoia. Besteak beste, suak eragin zuen burmuina handitzea, elikadura hobetzearen ondorioz.

### Espezialistak zeuden, edo denek zekiten sua egiten?

Edozein umek zekien. Hipotesia da, noski, baina segurutzat jo daiteke, bizirau-penaren giltzarrietako bat zenez gero, txikitatik ikasten zutela. Gaur egun, esate baterako, masai leinuko umeek ikasten duten bezala, historiaurrean egiten zen eran egiten dute eta. ●





BIDALI ZURE HARRIKADAK: [BERANDUEGI@ARGIA.EUS](mailto:BERANDUEGI@ARGIA.EUS)

## Diario Fatxok xingola morea jarri du gizonezkoen futbolari eskaintako 60 orrialdeetan "egunero delako M8"

**M**8a bezalako egun seinalatuan, Diario Fatxok urrats irmoa eman du emakumeen eskubideen alde. Gizonezkoen futbolari egunero eskaintzen dizkion 60 orrialdeetako bakoitzean, goi partean, xingola more bat jarri du, "zelaia berdea delako baina unibertsoa femeninoa".

Webgunean ere izan du presentziarik M8ak. Horrela, "Canal Real Sociedad muerte al Athletic Club" ataleko argazkietan, morez margotu dituzte Realeko jokalarien marra urdinak. Arbitroaren kamiseta, aldiz, zuri-gorritz paratu dute "gauza batek ez duelako bestea kentzen eta beharrezkoa delako borroka guztien arteko transbertsalitate desarrazializatu eta dekoloniala", DVko parakidetasunerako zisburuzagi Aingeru Mooncupak adierazi digunez. ●



### SAREAN ARRANTZATUA

Jonan  
*The Barbarian*



Zeruetan zarenak,  
emaiguzu gaur egun  
honetako limoia



Bolsonarori mikroa ahaztu zaio, Casioa ez.

## "Ez larritu, marikoiak, ni naiz koronabirusaren aita", dio Bolsonaro galtzontzilotan, motozerra eta caipirinha eskuetan

"Maskarak, sambodromoak eta *Carlinhos Brown* batukada eskola itxita, Xuxa bisitatzera joateko oztopoak... Zer eta egunean soilik 3.724 brasildar hil eta 85.938 kutsatzen direlako?! Ze marikoi klase zarete zuek? Inoiz ikusi al duzue Neymar kexak?" Asteburuan eman dituen hamalau mitinetako batean haserre hitz egin du herritar guztiak menpean hartzeko eratzuna duen Frodo Bolsonaro presidenteak.

"Jendeak ez du Biblia irakurri edo zer?! 365 bider esaten digu 'ez izan beldurrik', eta halere, beldurtu egiten gara... Benetan, zein tontoak garen. Birusa putakume galanta delako ari zaretela Paulo Coelhoen antzera negarrez? Ur Handitan-eko aurkezle zomorro horren aurrean zaudetela uste duzue? Ez nauzue ni ezagutzen, ala? Ni naiz birusaren aita, bros, nik esandakoa egingo du nik nahi dudanean". ●



**Liburu-dendak  
Kioskoak  
Papertegiak  
Kale-saltzaileak  
Jostailu dendak  
Denda ekologikoak  
Nekazarien kooperatibak  
Pentsu dendak  
Loradendak  
Belar dendak**

...

# Erosi herrian

**Ez gaudela zure denda kuttunean?**

Deitu diezagula dendariak eta ziztu bizian bidaliko ditugu:  
679 81 73 54 / [okorta@argia.eus](mailto:okorta@argia.eus)

**Zuzenean ARGIA n erosteko**

[www.argia.eus/azoka](http://www.argia.eus/azoka)  
943 37 15 45



# OPARITU ARGIA

ZAINDU NAHI DUZUN HORRI

*Puska dezagun izotza*

